




ARGIA



PANDEMIA GARAIKO ESKOLA

Gorputza geldi eta emozioak estalita

22-27. orriak

#2.734 | 2021 / 05 / 30 | 3,90 €



"Kontseilu bakarra GKSri: argi sektarismoarekin"

28 | JOXE IRIARTE 'BIKILA'



Aiaraldea Ekintzen Faktoriak atek zabaldu ditu

32 | EKONOMIA ERALDATZAILEA



LARRUN #263
Mendizaletasuna moda berrien aurrean

KULTUR FAKTORIA



SARRERAK SALGAI www.faktoria.eus

2021eko
Udaberria



Ekainak 5, zapatua 12:30ean

KONPOST

[musika]



Ekainak 5, zapatua 18:00etan

ERABATERA

[musika]



Ekainak 6, domeka

12:30ean eta 18:00etan

BULEGO

[musika]



Ekainak 12, zapatua

12:30ean eta 18:00etan

EÑAUT ELORRIETA

[musika]



Ekainak 13, domeka 18:00etan

**ELKAR EZAGUTU
GENUEN EGUNA**

[antzeziana eta literatura]



Ekainak 19, zapatua 18:00etan

IBIL BEDI

[musika]



Ekainak 26, zapatua 18:00etan

MARIA RIVERO

& tribu banda

[musika]

Info +
www.faktoria.eus

+BERBALDIK,
IKASTAROAK
ETA HEZKUNTZA
JARDUERAK



#BizitzekoFaktoria
#AmestekoFaktoria

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
AINARA AZPIAZU "AXPI"

Iritziak

- 17 | MIKEL ZURBANO
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | MIKEL IRIZAR
- 21 | ESTHER MUÑOZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: IRANTZU IBAÑEZ ETA AN-DONI DUQUE
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

32 | AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

bisitatu du Zigor Olabarriak, honen inaugurazioan. Duela bost urte amestu zuten espazio askatzailea martxan da. Euskaratik abiatuta, bizimodu oso baterako ekimenentzat gune izan nahi du espazio anitz honek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Hil edo bizikoak ditugun hezeguneen desagerpena mugatu behar dugu

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | PABLO LLORENTE

"Energia berriztagarria tsunami bat da eta horren helburua batzuen poltsikoak gizentzea da"

Reyes Ilintxeta

22 | HEZKUNTZA

Nola eragin dio pandemiak ikasgela barruko bizitzari?

Estitxu Eizagirre

28 | POLITIKA | JOXE IRIARTE "BIKILA"

"Ez dut damurik nire ibilbide politikoa ETAn hasi izanarekin"

Xabier Letona

34 | EUSKARA

Erronkaria eta zuberera

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA | MIKEL ACOSTA

"Musika etengabeko ikasketa da, beti ari naiz gauza berriak entzuten"

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Mafiosoak

Vatikanok iragarri du Italiako mafiosoak isolatu eta eskumikatzeko asmoa duela, Eliza Katolikoaren eta Camorraren arteko elkarbizitzari amaiera formala emanez. Ondo antolatutako mafiek elkar ulertzeko joera izan ohi dute. Italiatik atera gabe, azken bi hamarkadetan, 300 apaiz eta erlijio-gizon baino gehiago salatu dituzte adingabeei sexu-abusuak egiteagatik. Kondenatutako apaiz gehienek meza ospatzen eta hurrekin (meza-mutilekin) harremanak izaten jarraitzen dute. 2021 urte behar izan ditu Elizak apaiz pederastak sexu abusuengatik epaitzeko, eta ez 'zelibatoa hausteagatik'. Aurten bertan proposatu dute lehen aldiz aldaketa hori egitea Vatikanoren Zuzenbide Kanonikoko Kodean. Aita santu progeak badu lana mafiarri aurre egiten. Barrutik hasita.

 YARA MARDI / REUTERS
 AXIER LOPEZ







ZABALGANAKO 3 BIZILAGUNI AUZOKO FAROLA BATEAN IKURRIÑA ZINTZILIKATZEGATIK MOZAL LEGEA EZARRI DIETEN BITARTEAN, 14.000 EUROKO IKURRIÑA JARRIKO DU UDALETXEAK IGANDEAN. LOTSAGARRIA ZUEN ZINISMOA GORKA URTARAN ETA PNV

@Gasteiztar1



ZENBAT GALDERA ETA GOGOETA: PIPERPOTOA IZAN BALITZ, INORK POLIZIARI DEITUKO ZION? POLIZIA JOATEKOTAN, JARRERA, IRUZKIN ETA SALAKETA BERBERAK ERREPIKATUKO ZITUEN? NORK HITZEMAN ZUEN MOZAL LEGEA BERTAN BEHERA UTZIKO ZUELA ETA EZ DU BERE HITZA BETE?

@rkotsoa



HORRELAKO INTSIGNIA BAT OFENTSIBOA ETA OINEZKOENTZAT ARRISKUTSUA IZAN ZITEKEELA ESAN ZIGUN. ERABAT HARRITU GINTUEN POLIZIAREN AHOTIK HORI ENTZUTEAK, AGERIKOA DENEAN UDALZAINGOAK BERAK IKURRIN PARE BAT DARAMATZALA UNIFORMEAN. 2021EKO GASTEIZEN, FRANKISMOAN BEZALA, ABERRI EGUNAREN ALDARRIKAPENA KALERATZEKO IKURRINA BAT KALEAN ZINTZILIKATZEA JAZARRITA DAGO

Isuna jaso duenetako bat ALEA



EUSKAL KONFEDERAZIOA

Hizkuntza Gutxituen Legea, debaluatuta

OIHANE ARRETXEA BEREZIARTUA

Apirilaren 8an onartu zen Hizkuntza Gutxituen Legea, baina horko bi artikuluko Konstituzioaren aurkakoak zirela erabaki zuen joan den astean Frantziako Konstituzio Kontseiluak. Lege-proposamena atzera botatzearen erabakiaren ostean, legearen aldekoek berrikusketarako bideak aztertzen ari ziren. Igandean, ordea, Emmanuel Macron presidenteak berrikusketarako bidea guztiz itxi du, Konstituzio Kontseiluak erabakitako testua sinatuz. Ipar Euskal Herriko arduradunek “gerra deklaraziotzat” hartu dute erabakia.

Pasa den urteko otsailean Paul Molac diputatu bretoiak Frantziako Legebiltzarrean Hizkuntza gutxituei buruzko lege proposamena egin zuen eta testua bere horretan onartu zen apirilean. Egun batzuk geroago, baina, 60 diputatuk baino gehiagok legearen aurkako helegitea jarri zuten Konstituzio Kontseiluan. Kontseiluak lege proposamena moldatu eta garrantzi handieneko bi artikuluko baliogabetu ditu: 4. eta 9. artikulua. 4. artikulua hezkuntzako murgiltze ereduari buruzkoa da eta 9. artikulua zibileko dokumentuetan esaterako “ñ” zeinua erabiltzea galarazten du, frantsesez existitzen ez dena baina bai euskaraz eta bretoierraz.

Azken asteetan hainbat eztabaida izan dira erabaki hori leheneratzeko legeko aukeren inguruan. Izan ere, bi aukera posible ikusten ziren. Bata Macronek konstituzioko 2. artikulua erreforatu egitea litzateke, Frantsesa Estatuak hizkuntza ofizial bakartzat hartzen duen artikulua moldatzea hain zuzen ere. Bide luzea litzateke, presidentearen borondatea ez ezik, bi ganberen gehiengo edo erreferendum bat beharko litzatekeelako.

Bigarren aukera, 10.2 artikuluan babestea litzake. Laburbilduz, artikuluko horrek presidenteari gaitasuna ematen dio Legebiltzarrari testua berrikusteko eska diezaion, berrikusketa osagarri moduko baterako bidea irekiz. Bide hori bertan behera geratu da Macronek testua sinatu duenean. Ipar Euskal Herriko arduradun instituzionalek eta hezkuntza sareek “gerra deklaraziotzat” jo dute presidentearen jarrera politikoa eta maiatzaren 29an manifestazioa deitu dute Baionan.

Hilerrri turismoa



ARITZ GALARRAGA

Txani Rodriguezen azken eleberriko protagonista, Iruene, alde guztietatik da maitagarria: ez du bikotekiderik, ez du seme-alabarik, bakarrik edaten du tabernetan, gizajendea nahiko ergela dela dio –kafea eta esnea konbinatzeko asmatu ditugun hamaika moduen harira–, maiteminduta dagoen jendeak molestutzen du, ondo pasatzen saiatzen ari diren taldeak ikus-teak tristatzen, etxean bakarrik lo ez egiteagatik batzen da protestan ari diren langileen kanpaldira. Eta da maitagarria batez ere inoiz ondorioztatu zuelako kostako herri ederretan bizi den jendea gupoa izan behar dela ezinbestean: egun oraindik ere esaten badiote adibidez Hondarribiko gizon bat aurkeztuko diotela, berak imajinatzen du gizon hori horail –gero eta ugariagoak diren ile zuriak onartzen badira, ados–, beltzaran –ilunpetan batez ere–, begirada ozeaniko batekin –gehi miopiarekin, win-win– eta bizkar babesle baten jabe –zeina okerragotzen ari den, eskuinetarantz–. Labur, Bernardo Atxagari bezala dena gustatu zaidala niri ere Txani Rodriguezen azken eleberritik.

Baina badu gauza bat non talka egiten dugun: Irunek ez du partekatzen pertsona askok hilerrriak parke tematikoak balira bezala bisitatzeko duen afizioa, hilerrri turismoa dei genezakeena. Ez da ez zaizkiola hilerrriak gustatzen: ez zaizkio gustatzen eta ez zaizkio ez gustatzen ere, beharrezko ikusten ditu eta kito. Nahiz etxe bat baduen jabetzan eta beste etxe baten alokairua pagatzen duen bere gurasoak dautzan hilerrri ondoan bizitzeko. Nahiz lan mahaia hilerrira zuzendua duen hain zuzen gurasoen ikuskatzearekin lan egiteko. Nahiz lo egiten duen gorputza luze, hankak elkarrekin, besoak bular gainean gurutzatuta. Nahiago ditu hondartza birjinak, anfiteatro erromatarrek, karta museoak. Ados. Arantzatxoa kentzeko, ordea, Mariana Enríquezen *Alguien camina sobre tu tumba* erostera joango naiz, konfiantzazko liburu dendara, hor ez binaute nire afizio nekrofiloengatik gaizki begiratuko. ●

“EUSKARAREN
BENETAKO MISTERIOA
EZ DA BERE JATORRIA,
IRAUPENA BAIZIK”



ADUR

“EZIN DUGU LEGITIMATU JAZARPENA, HERIOTZA”

IRUNGO HARRERA SAREA

Bidasoa ibaian Boli Kostako gazte migratzaile baten gorpua aurkitu dute maiatzaren 22an itota. Bidasoa ibaia zeharkatuz Hendaiara heldu nahi zuen gazteak. Duela hilabete bat, eritrear jatorriko beste gazte baten gorpua ere aurkitu zuten hortik gertu. “Atzo bertan salatu genuen pertsona migratzaileek Irun eta Hendaiara arteko mugan jasaten duten jazarpene eta ehiza egoera. Esan genuen azkenean hildakoak eragingo zituela egoera horrek. 24 ordu geroago hildako bat dugu dagoeneko. Ezin dugu normalizatu bizitza hobearen bila datozenen sufrimendua, ezin dugu legitimatu jazarpene, heriotza. Muga arrazistak, gizarte publiko baztertzailak ez dira aukera bakarra. Jendarte abegikorra garelako erakutsi behar dugu”. 2021/05/22



Ategorrieta 1931



JUAN MARI ARREGI

Langileen sarraskiak ez ziren soilik Frankismo garaian egin, Gasteizen 1976an bost langile hil eta dozenaka zauritu zituztenean bezalakoak. Duela 90 urte aldarrikatutako Espainiako Bigarren Errepublikan ere indar armatuek langileen aurkako errepresio basatia eragin zuten, Casas Viejasen (1933an) eta Asturiasen 1934ko iraultzaren kasuan bezala. Eta Hego Euskal Herria ere ez zen errepresiotik libratu.

1931ko maiatzaren 27an, Errepublika aldarrikatu ondoren, Ategorrietan itsasoko zazpi langile hil ziren. Langileak greban zeuden, eta emakume eta hurrekin batera, 2.000 lagun Pasaiatik Donostiara manifestazioan iristen saiatu ziren. Grebalariek, CNTren eta FLSOren babesarekin, atsedean hartzeko eta soldata duinagoak jasotzeko eskubidea eskatzen zuten.

Agintariek armadarekin erantzun zuten manifestariak hiriburura iristea eragozteko. Hala eta guztiz ere, manifestazioak lehen kordio militarra igaro zuen, eta, Ategorrietako erlojuaren parrera iristean, Guardia Zibilak tiro egin zuen martxaren kontra, zazpi langile zerraldo utzita. Herritarren erreakzio solidarioaren ondoren, gerra egoera ezarri zen, baina, sarraskia gertatu eta egun batzuetara, gobernu errepublikarrak langileen aldarrikapenak onartu zituen, eta horrek grebari amaiera eman zion.

Orain arte oharkabean igaro edo ezkutuan eduki diren gertakari larri horien aurrean, memoria historikoaren berreraikitze ofiziala egin behar da. Eta Bigarren Errepublika babestu zuten eta gaur egun indarrean dauden alderdi eta sindikatuak, baita tartean zeuden udalei ere, gertaera horien aitortza publikoa egitea eta barkamena eskatzea dagokie. Ategorrietan oroigarri gisa monolito edo plaka bat jarritz hasi beharko lukete bide hori. ●



UZTARRIA

Ertzaintzan, trantsiziorik ez

AXIER LOPEZ

Ertzaintzak berriro lortu du. Harridura eragin du gazteen aurka –bai, kolektibo orokorrean– antolatutako duen azken kale sarekadan egindakoagatik. Gaueko ordu txikietan hutsik zeuden Azpeitiko kaleetan Ertzaintzaren dozenaka patruila, furgoneta eta ertzain ikusi ditugu irudietan, gazteren bat harrapatu nahian, foam pilotekin tiro eginez. Delitua? Ertzaintzaren bertsioaren arabera: "300-400 gazte kale zurrutean, musika ozen jarrita eta suziriak piztuta". Emaitzak: 19, 18, 15 eta 14 urteko lau gazte atxilotu dituzte, desordena publikoa egotzita. Igandean Azpeitiko plazan jendetzak Poliziaren indarkeria salatzea ere lortu dute.

Jotzera tiro egiten duen Poliziaren bertsio ofizialean ez dira agertzen beste datu batzuk. Adibidez, asteazkenean patruila batek mehatxu egin ziela herriko gazte kuadrilla batzuei esanez larunbatean istiluak egongo zirela eta larunbatean bertan arratsaldetik Ertzaintzaren presentzia herrian oso nabarmena zela.

Edonola ere, larunbatekoa ez da salbuespena. Pandemiaren kudeaketa bertikal eta zigorzalearekin batera, herri askotan gertatu baitira horrelakoak. Izan gazte, ikasle, sindikalista, ITPko edo Tubacexeko langile, matrail-hezurak eta sudurrak apurtzen darrai Ertzaintzak, salbu eta Madrildik etorritako Desokupako neofatxa bazara.

Baina demagun, baietz, egia beti dela Ertzaintzaren bertsioa, eta Azpeitiko kasuan, "gazteak poliziak ikustean harriak, botilak eta bengalak jaurtitzen hasi dira". Eta demagun horrek ere justifikatzen dituela ondorengo ertzainen mobilizazio demasa, tiroak, atxilotetak... Baina, inor ez al da geratu eta segundo batez pentsatu, zergatik? Zergatik horrelako kontrakotasuna Poliziarekiko? Eta zergatik orain eta bereziki gazteak? Errazena da Erkoekaren bidetik jarraitzea. Errua besteei bota, prediku-aulkitik arduragabekeria txartelak banatuz eta Esan, Erne, Sipe, Euspel eta Ertzaintzan nagusi diren eskuindarrei bidea libre utzita. Bere kideak babestea beste helbururik ez duten "sindikatu" horien komunikatu hooliganak irakurtzea oso ariketa osasuntsua da demokraziaz hausnartzeko.

Ertzaintzan ez dute trantsiziorik egin nahi. Hamarkadetan ondutako eredu militarizatu eta opakua ez dute aldatu nahi. Eroso daude on eta gaiztoen arteko kontakizunean, borroka armatuaren garaian bezala, txartel zuria eta ukiezintasuna bermatzen dizkielakoan. George Floyd hil zuen polizia zigortu zuten egun berean, Iñigo Cabacasen hilketatik kondenatutako ertzain bakarrari bertan behera utzi zioten bi urteko kartzela zigorra. Hori kasualitatea baino, kausalitatea da. ●



ESTRATEGIA BATERATUAREN BEHARRA

BILBO. Euskaraz bizitzearen aurkako erasoei erantzuteko estrategia bateratua eskatu du Euskalgintzaren Kontseiluak, maiatzaren 22an EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean bilduta. Irungo udaltzain izateko oposaketetan eskatzen zen euskara jakitea, baina euskara ez dakitenenganako diskriminatzailea dela iritzita, deialdia baliogabetu zuen Auzitegiak. Frantziako Konstituzio Kontseiluaren erabakia ere kritikatu dute elkarretaratzean. “Ozen esan behar dugu komunitateak aurrera egingo duela”.

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA

30.000

eurotik gora ditu isunetan Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak, etxe kaleratze bat gelditzen saiatzeagatik. Hamabost pertsonaren etxe kaleratzea gelditzen saiatu zen sindikatua eta isun andana jaso dute: 700 euroko hamabost isun desobedientziagatik, eta 1.200 euroko beste hogeita zortzi isun desobedientzia eta justizia oztopatzea egotziz.



Suhiltzaile bat lanik gabe utzi nahi izan dute haurdun egoteagatik

AXIER LOPEZ

Bilboko Udaleko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko langile bat haurdun egoteagatik kontraturik gabe utzi zutela eta, ELA sindikatuak publikoki salatu zuen udalaren jarrera. Horren ostean, legedia kontsultatu duela eta kontratua egitea dagokiola adierazi du Udalak.

KALERA

Suhiltzaileak bi urte eta hiru hilabete daramatza Bilboko Udalean lanean. Lan-osasuneko protokoloari jarraituz, suhiltzaileari zegokion bere baldintzetara egokitutako lanpostu batera berregokitzea; baina, Bilboko Udalak lan-poltsak kudeatzeko irizpideei jarraituta, kontratu gabe utzi zuen. Haurdun egonda, ezin duela suhiltzaile lanik egin, argudiatu zuen Bilboko Udalak.

IRITZI ALDAKETA

Hori guztia publiko egin ostean jarreraz aldatu du Bilboko Udalak eta, egungo legedia kontsultatuta, kontratua egitea dagokiola erabaki du. ELAK adierazi duenez, Bilboko Udalarekin hainbat bilera izan bazituen ere ez zen jarrera aldaketarik izan, baina azkenik Udalak erabakiz aldatu duela ikusita pozik azaldu da sindikatua eta “ekintza sindikalaren fruitua” dela aldarrikatu du.



AR REDAdeg. Bretoieraren aldeko “Korrika” joan den ostiralean abiatu zen Finistèretik. Bi urtez jarraian ez egitea “eutsiezina” zela iritzita, Ar Redadeg bretoieraren aldeko lasterketa kalera ateratzea erabaki dute, osasun neurri zorrotzak betez. 2008an hasi zuten ekimena Britainian.



HONDAKINAK. Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak pixoihalak eta higiene-produktuak birziklatzeko zerbitzua abian jar dezala eskatzeko sinadura bilketari ekin dio Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. “Hainbat udalerritan bereizita jasotzen dira jada”.



EHZ. Martxoan iragarri moduan aurtengoan EHZ jaialdia egingo da, uztailearen 2an, 3an eta 4an Irisarrin (Nafarroa Beherea). Tokiko ekoizleekin eta tokiko artistekin ari dira lanean, eta osasun neurrietara egokituko da jaialdia; horretarako formatu berezi bat ari dira prestatzen.

BERANDU IZAN BAINO LEHEN, HIL EDO BIZIKOAK DITUGUN HEZEGUNEEN DESAGERPENA MUGATU BEHAR DUGU

Garrantzia handiko ekosistemak dira hezeguneak. Jendartean eta herritarron iruditegian inportantzia gutxiakoak izanik, hauen aldeko pedagogia lana egin behar dela diote aditu gero eta gehiagok. Hain zuzen, bioaniztasuna bermatzeko, herritarron egunerokoa segurtatzeko, baita klima larrialdia murrizteko ere ezinbesteko ekosistemak dira. Maleruski, abiadura kezkarriaren desagertuz doaz: 1970az geroztik hezeguneen %35 desagertu da. Klima aldaketak agortzeak areagotzen baditu ere, usu gizakion aktibitateak dira laku, lokaztu, erreka, zein mangladien desagertpenen oinarrian.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Antropozentrismoa dela eta abiadura handian desagertuz doaz animalia eta landare espezieak, gizakioi traba eta axola gehiegi eragin gabe, maleruski. Nature Right Gobernu Kanpoko Erakundeak dio: hogeit hamar minuturo fauna ala flora espezie bat desagertzen da, urtero 26.280. Baina badira isiltasunean, inolako arrabotsik egin gabe desagertzen diren beste elementu batzuk ere: hezeguneak –izan lokaztiak, lakuak, mangladiak, zingirak ala padurak-. 1970az geroztik mundu mailako hezeguneen %35 desagertu da. Azken aldi hauetan, urtean %0,85 eta %1,6 artekoa da horien itzaltze tasa –konparatzeko, oihanak baino hiru aldiz gehiago-. Handi zein ttipi denak dira hunkiak. Handietan handien artean duguna, Asia Erdialdeko Aral itsasoa 68.000 km²-koa izatetik 17.160 km²koa izatera pasa zaigu azken 60 urteetan.

Betidanik egon badira ere idortzeak, 2000 urteaz geroztik bizkortu egin da eritimoa eta beroketa klimatikoaren ondorio zuzena dela argi gelditzen ari da: tenperaturen emendioak uraren lurrunketa handiagoa ondorioztatzen du. Fenomenoari ez zaionez behar heineko arretarik bideratzen, kezkatuak dira hainbat zientzialari, tartean Herbehereetako eta Alemaniako batzuk, iaz *Communications Earth and Environment* aldizkarian *The other side of sea level change* (“Itsas mailaren aldaketaren beste aldeak”) irizti-artikuluaren egileak. “Nahiz eta ba-

rrualde kontinentalen lehorteza arazo garrantzitsutzat jotzen den ur gezaren eskasiari dagokionez, aintziren mailan duen eraginak beste ondorio sakon asko izanen ditu, gutxietsi egiten direnak; alta milioika pertsonaren biziraupenari eta ekonomiei eragiten die”. Nazio Batuen Erakundeari zein IPCC Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeari eskatzen diete gaurdanik bideratzea fenomeno mugatzeko estrategiak. Adibiderik esanguratsu bat haritzat dute haien artikuluaren, fenomenoak bioaniztasunaren gain, herritarren gain eta lekuko ekonomiaren gain dituen ondorio konkretuak azaltzeko: Kaspiar itsasoarena, munduko lakurik handienarena. Hogeit hamar urtez 1,5 metroz ttipitu zaio sakontasuna, eta ondoko 75 urteetan hoberenean bederatzi metroz eta txarrenean hemezortzi metroz apalduko da, bere zabalera %23 edo %34 murriztuz.

Fenomeno hau erabaki politikoetan integratu beharra dela argi du Martha Rojas Urrego Ramsarko hitzarmenaren idazkari nagusiak ere: “Legegileek programa politikoetan integratu behar dute errealitate hau, hezeguneen biziraupenaren alde inbertitu behar dute. Oso azkar desagertzen doan ekosistema honen garrantziari buruzko heziketa bideratu behar dugu, hezegunerik gabe denok gaudelako arriskuan”. 1975an sartu zen indarrean hezeguneei buruzko akordio hau eta babestu beharreko garrantzia handiko espazioen zerranda osatzen da-

biltza –%15 dira zerrandan sarturik-, tartean Mundaka-Gernikako itsasadarra, Salburuako hezegunea eta Pitillasko aintzira ditugula, besteak beste.

Duda gabe, “gune babestu” gisa sailkatzea dugu aterabideen artean, besterik ezean desagertuz doazelako. Euskal Herriko daturik ez atzemanik, demagun Frantziako Estatuan hezeguneen bi herenak dira desagertu XX. mendean eta azken urte hauetan tendentzia bera sendi da. Laborantzaren modernizazioak zein urbanizazioak irentsirikoak dira hauek.

ABERASTASUN HANDIA, FAMA TXARRAREN GIBELEAN

Ekoizpenerako oztopo, joan-etorrientzako traba, bakterientzako ohandze eta eritasun iturri, fama txarra dute hezeguneei eta hauen desagerraraztea izan da urte luzeetako logika. Alta, fama txarra ukanik ere “ezinbestekoak” dira.

Hasteko, bioaniztasunaren altxor-gune direlako. Izan ur geza zein elikagai iturri, gizakion biziraupenerako beharrezkoak izateaz gain, munduko espezieen %40 ditu bizitzeko eta ugaltzeko behar, eta espezie hauen %25 da desagertzeko arriskuan.

Klima aldaketa murrizteko ere dira beharrezkoak –nahiz eta metano igoerle ere izan-. Zenbaki esanguratsua: munduko azalaren %3 diren zohikaztegiek munduko CO₂ kantitatearen %30 atxikitzen dute. Gainera, klima larrialdiaren ondorioez babesteko ere ditugu beha-



POOPÓ LAKUA BOLIVIAN.

2015EKO ABENDUAREN 16AN DESAGERTU ZEN BOLIVIAKO BIGARREN LAKURIK HANDIENA. IDORTZEAREN ONDORIOZ, BIZITZEKORIK EZ GEHIAGO UKANKI, LEKUTU BEHAR IZAN ZUTEN BERTAKO HERRITARREK, BOLIVIAKO LEHEN ERREFUXIATU KLIMATIKOAK BIHURTUZ.

rrezkoak –izan uholdeen kasuan ura atxikitzen dutelako, edota idorteen kasuan, lurzoruan dituzten erreserbak poliki-poliki askatzen dituztelako, bizidunok ezin bestekoa dugun ura eskaintzeko–.

GIZAKION AKTIBITATEEN ALBO-KALTEAK

Baina Aral zein Kaspiar itsasoa kasu, handien desagerpenak ezin dira klima aldaketaren testuinguruan kokatuz bakarrik ulertu. *Reporterre* komunikabideak plazaraturiko *En Bolivie, les orphelins du Poopó pleurent leur lac disparu* (Bolivian, Poopóko umezurtzak negarretan, haien lakuaren desagerpenagatik) erreportajearen argiki azaltzen da aldaketa klimatikoaz gain, bestelako arrazoiak ere badirela, parte handi batean gizakion aktibitateei loturikoak. Ureztatze kanalek

ura desbideratu izana dugu idortzeen oinarrietariko bat. Kontua da eskala ttipian, baserri pare baten beharrei erantzuteko desbideraketa ez bada kaltegarria, eskala handian burutzea dela suntsigarri. Tamalez hori gertatu zitzaion Boliviako bigarren aintzira handiena zenari: azken urteetan osasuna zaintzeko eta haragi gutiago jateko xedez, munduaren beste puntakook quinoa zereala kontsumitzen gabiltzala, honi erantzuteko ekoizpena bultzatu dute modu industrialean, ur kantitate ikaragarriak xurgatuz.

Bestalde, nikel, kobre, kadmio, plomu, zink ala beste, metalen mehategiak ere ditugu arazoaren oinarrian –hor ere gure ordenagailu, telefono ala bestelako teknologia berrietarako erabiliak–. Ur kutsatuaz gain, ondorioztatu zabotzak sekulakoak dira: “Sedimentuen ara-

zoa ere hor dago, zabor horiek errekek blokeatzen dituzte, landaretza itotzen, fauna, flora eta ureko bizia suntsitzen. Lakuaren zolan metatzen dira, sakontasuna itsuski ttipituz, eta uraren berotasuna eta beraz lurrunketa bideratuz”, irakurri daiteke erreportajearen. 2014ko agorrileko datuen arabera, egunean 2.000 tona hondarkin isurtzen ziren Poopó lakura, industria gunea trabeskatzen duen Desaguadero errekek isuririk.

Eta Poopó desagertzearekin batera, desagertu ziren inguruko herritarrak; arrantaz bizitzeko eta egarriari erantzuteko manerarik ez zutela, lekutu behar izan zuten. Izena izanaren memoria, bertakoak “ureko herritar” izendatuak ziren ordura arte. Boliviako lehen errefuxiatu klimatiko gisa ezagunak dira orain. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NINA MÛR
eyewear

*Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com





ENERGIA BERRIZTAGARRIA TSUNAMI BAT DA ETA HORREN HELBURUA BATZUEN POLTSIKOAK GIZENTZEA DA



Erakunde ofizialek eta politikariek egin nahi ez dituzten txostenak egiten ditu Sustrai Erakuntza taldeak. Legeen zirrikituak bilatzen eta baliatzen dituzte ustezko garapen proiektuen aurka borrokatzeko.

AHT, energia berriztagarrien tsunamia, uraren eta hondakinen kudeaketa, Mina Muga eta Erdiz harrobi eta meategiak, Aroztegia Nafarroako Marina d'Or berria... ezin konta ahala bataila.

 REYES ILINTXETA  ENKO ARZUAGA

Nola hasi zen zure ibilbide politikoa?

14 urterekin Alfaroko institutuan hasi nintzen ideia komunistak ezagutzen eta berehala egin nuen bat haiekin. Batxilergoko Hirugarren Maila errepikatu nuen denbora pila ematen nuelako egunkariak eta irratsaioak egiten eta grebak prestatzen. UBI amaitu ondoren boluntario gisa joan nintzen Gurutze Gorriarekin soldaduska egitera. Intsumiso edo eragozle egiten nintekeen, baina etxean egoera zaila zen. Ni aitona-amonarekin hazi nintzen eta aitona hil berria zen, beraz, ikasten jarraitzeko edo lanean hasteko hori iruditu zitzaidan bide egokiena. Institutu

garia finkatu nituen inoiz aldatu ez ditudan nire bi konbikzio iraunkorrenak: komunista izatea eta atleticzalea.

17 urterekin CCOO sindikatuan afiliatu nintzen. Ondoren Euskadiko Alderdi Komunistan eta Nafarroako Ezker Batuan. 1991n zinegotzi sartu nintzen Castejonan, nire herrian, 1995era arte, eta urte hartatik 1997an dimititu arte, parlamentaria izan nintzen. 1999an Ezker Batua ere utzi nuen. Hor amaitu zen nire alderdi ibilbidea, politikoa ez delako inoiz amaituko, Sustrai Erakuntzan, auzo-lagunen elkarteetan edo guraso elkarteetan jarraitzen baitut politika egiten.

Zergatik zara komunista?

Beharbada lehenago kristaua izan nintzelako. Komunista naiz ideologia honek duen mundu-ikuskerarengatik; azken bi mendeotan aurrerapen asko ekarri ditu maila guztietan. Hemen edo denok salbatuko gara edo inor ez. Klaseak izan behar du gure pentsaeraren erdigunea, ikuspegi internazionalista eta solidarioarekin. Komunismoa, feminismoa edo ekologismoa bezalako mugimendu eraldatzailerik ezean, ideologia faxistek beteko dute toki hori. Hau gaur egungo arazo larrientakoa da.

Pablo Lorente Zapateria

CASTEJON, 1969



1991tik 1995era Castejongo zinegotzia izan zen IU-EBren esku-tik, lehen parlamentari komunista Nafarroako Parlamentuan (1995-1997) eta PCE-EPK-ko idazkaria Nafarroan 1996tik 1999ra. Sustrai Erakuntza fundazioaren sortzaileetako bat eta egungo presidentea. Ekologista, autodidakta, aita eta, lanbidez, saltzaile. Lakuntzan bizi da.

Lehenengo parlamentari komunista izan zinen Nafarroan. Zergatik eman zenuen dimisioa?

Arrazoi politikoengatik. Nik kargua-ren zina egin nuen legeak hala aginduta, errepublikar eta euskal herritar gisa, nahiz eta euskaraz ez jakin. Eta egin nuen Itoizko urtegiaren aurkako kamiseta batekin. Bost kide ginen Ezker Batuan eta hau ez zitzaizen guztiei gustatu. Gure artean, bestalde, ez geunden ados programan eta aurrekontuetan.

Hasieran dietak baizik ez nituen konbratzen, beste alderdikide batzuek ez bezala. Nire dimisioa behartu nahi zutelastu dut. Handik denbora batera nomina bat jarri zidaten, baina bost hilabetera, 1997an, dimititu egin nuen Floren Aoiz eta Adolfo Araiz preso eraman zituztenean, gu euskal gatazkaren aferan elkarrizketa eta negoziazioaren alde geundelako. Bakea lortzen da ez soilik armak uzten direnean, baizik eta justizia egiten denean.

1997tik 1999ra Ezker Batuaren zuzendaritzan eta Estatuko Batzorde Federalean egon nintzen, baina desadostasunak direla medio, 1999ko abenduan 100 pertsonak alde egin genuen Euskadiko Alderdi Komunistatik eta etxera joan nintzen.

Nola sortu zen Sustrai Erakuntza?

AHT gelditu! mugimenduan edota Erriberako zentralen aurkako borrokan ibilitako ekintzaileek bat egin genuen uste genuelako beharrezkoa zela tokiko erakunde txikiei eta gizarte-tal-deei laguntza juridiko-teknikoa eman-go zien tresna bat.

Prozedura guztiak urtetan luzatzen dira eta herri oposizioak muskulu juridiko teknikoko aparatu horren laguntza behar du, borroka horiek bertan behera geldi ez daitezten. Horretarako sortu zen Sustrai Erakuntza 2009an.

Nola funtzionatzen du?

Fundazio bat gara. Zazpi kide gaude patronatuan eta ez dugu ez soldatarik, ezta gastuetarako sosik jasotzen ere. Gai zehatzetarako behar diren zerbitzu juridiko eta teknikoak kontratatzen ditugu. Horregatik ezinbestekoak ditugu sustraikideek egiten dituzten diru ekarpenak. Egun 90 bat kide ditugu eta Onura Publikoko Erakundea garenez, errenta aitortpena egiterakoan jarritakoaren %25 itzultzen zaie. Elkarlan hitzarmen xume batzuk ere ba-

ditugu toki entitate zenbaitekin, baina funtsezkoena da jendeak jartzen duena. Onena litzateke 500 bat sustraikide izatea.

Kapitalismo berdea zer da?

Gezur bat. Kapitalismoa ezin da berdea izan, berdea ulertzen badugu orain dugun ekoizpen eta kontsumo ereduaren alternatiba bezala. Lehoi bati barazkijalea izateko eskatzea bezala da.

Kontzeptu hori marketin hutsa da. Kapitalismoak hazkunde etengabea behar du. Garapen jasagarria ere ezinezkoa da kapitalismoaren barruan.

Honek guztiak, korporazio handien interesei men egiten dieten ereduak sustatzera garamatza, eta hori da orain Europar Batasunean ikusten ari garena, adibidez, Next Generation funtsekin edota pandemiari ematen ari zaion tratamenduarekin. COVID-19arena egia esan sindemia bat da, hau da osasun kontu hutsa baino gehiago den arazo sozio-politiko-ekonomikoa. Energia berriztagarriekin eta auto elektrikoarekin dena konpontzen dela pentsatzea da kapitalismo berdea, eta hori ez da horrela.

Eta zein da soluziobidea?

Ekintza iraultzailea behar da. Ez da soilik klima aldaketaren arazoa, baizik eta pentsamenduaren, balioen eta herrien arteko berdintasun harremanen kolapsoa. Soluzioa ezin daiteke izan baliabide naturalak xahutzen jarraitzea bai hirugarren munduan eta bai hemen bertan ere. Mina Muga Zangotza aldeko meategia edo Erdizko harrobia bezalako proiektuak Amazoniaren deforestazio edo Kongoko koltan ustiaketaren lerro berean daude. Hemen oraindik ez dituzte pertsonak hiltzen, baina borondateak erosten dituzte. Publizitatea egiten dute kirol jardueretan edota hainbat kolektibori diru-laguntzak ematen dizkiete, adibidez. Baina egoera guztiz larria da eta bizimodu aldaketa eta desazkunda ezinbestekoak dira. Gutxiago kontsumitu eta aberastasuna eta lana banatu behar dira. Aterabide kolektiboak bilatu behar dira, ez norbanakoenak edo eliteenak.

Kontatzen digutena sinesteko gogo dugu?

Bai, lurra prestatzen joan dire-lako urte askoan eta errematea



COVID-19ari ematen ari zaion trataera izan da. Gaixotasunaz harago, aprobe-txatzen ari dira errepresioa eta konduktibismoa sustatzeko. Beldurra da gauzarik arriskutsuena. Aterabideak ez dira ez azkarrak ezta errazak ere, baina oinarriak jartzen has gaitzke. Beharbada COVID-19arena izango da hurrengo hamarkadetan nazioarte mailan izango dugun krisialdi arinenetako bat, milioika pertsonen sufrimendua ekarri duen arren. Beldur kolektibo eta globala antolatzen ari dira eta bitartean jendetzak gosez, errepresioz, gerretan edo bestelako gaixotasunez hiltzen jarraitzen du. COVID-19ak dena estaltzeko balio du. Kapitalismoak bere bide-orrarekin jarraitzen du eta baliabideak gero eta gehiago konzentratzeko beharra du. Aberatsak gero eta aberatsagoak dira eta pobreak pobreak, XIX. mendean Marxek eta Engelsek aurreikusitako zuten bezala.

Honi guztiari bira eman behar zaio, bestela hauteskundeetan faxistek gora egiteaz gain, jendearen pentsamendu kolektiboa eskuin muturrekoa izango delako. Eta hori hasi da gertatzen dagoeneko. Errepresioa normalizat hartua izatea ikaragarria da. Horren erakusle da, adibidez, militar bat edo polizia bat ateratzea osasun gaiez prentsaurrekoetan hitz egitera.

Gure bizimodu eredia errotik aldatu behar dugu. Ekonomia soziala bultzatu eta zaintza erdigunean jarri lehenbaitzen, aspalditik mugimendu feminista eta ekologista aldarrikatzen ari diren bezala.

Ezkerreko alderdien jokamoldeaz zer uste duzu?

Eskuin muturrari askatasunaz hitz egitea errazten ari zaizkio, askatasunean inoiz sinetsi ez dutenean. Honekin batera, aurrekontuak sinatze-ko orduan ez dira marra gorriak jartzen ari, AHT-ren proiektuarekin, adibidez.

Zer aukerak galdu zituen aldetako gobernuak Nafarroan?

Asko. Hasteko Euskararen Legea aldatu behar zuten eta ez zuten egin. Aukera izan zuten PAI ingelesezko hezkuntza programa bertan behera uzteko, horren helburu nagusia euskararen zabalkundearen aurka egitea delako, eta hor ere kale. Ingurumen kontuetan, erakundearen planifikazio demokratikoa bermatuko luketen lege berriak ezartzeko aukera galdu

zuten. Ez zioten eskua sartu zor publikoari eta jarraitzen dugu itzalpeko bidetariak ordaintzen atzerriko enpresei eta inbertsio funtsei. AHTa ez zen gelditu. Are gehiago, onartu zutena izan zen EAJ, UPN eta PSNk nahi zutena. Lau urte horietan lan gehiago esleitu ziren aurreko hamabost urteetan baino. Esaten zuten Madrilgo kontua zela, baina eraikuntza proiektuak Nafarroan egiten dira. Hemendik hara ez badira bidaltzen, ez dira abian jartzen. Guk Nafarroarako Tren Publiko eta Sozial baten aldeko apustua egiten dugu, garraibide iraunkor, herrikoi eta demokratiko gisa. Ezinbestekoa da zama astunen garraio guztia kamioietatik trenera pasatzea eta pertsonen bizitokiak ongi konektatzea. Duela bi urte aurkeztu genuen, baina inork ez du aintzat hartu.

Borondate politikoaren kontua izan zen eta gauza bera gertatu zen Castejongo zentral termikoekin. Beti haien aurka egon diren alderdiek ez zuten ezer egin geldiarazteko. Beste aukera galdu bat Nafarroako ubidearena izan zen. Ez zuten ezbaian jarri beharrezkoa den ala ez, ureztatze eredia ez zutelako aztertu. Kontua ez da lur azaletik ubidea kendu eta lurrazpiko tutu batzuekin ordezkatzeko, afera da nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpen eredia aldatu behar dela. Ustiategi txikiak eta ekoizpen ekologikoak legez lehenetsi behar dira, gure akuifero eta ibai guztiak ongarririki kimikoz kutsatzen ez jarraitzeko eta Caparrosoko makro-behitegia bezalako proiektu suntsitzaileei aurre egiteko.

“

Mina Muga Zangotza aldeko meategia edo Erdizko harrobia bezalako proiektuak Amazoniaren deforestazio edo Kongoko koltan ustiaketa berean daude”

Joan den legealdian ere Aroztegia proiektuari argi berdea eman zioten Lekaroz herri txikian hotela, golf zelaia eta 228 txalet egiteko. Honetaz guztiaz gainera, aldatetaren alderdietako zuzendaritzek beren oinarrietako batzuk desmobilizatu zituzten, jada boterean zeudela ulertuta. Aldaketaren gobernuarena larria izan zen, urte gutxian lortzen ahal zena askoz gehiago kostako delako orain, eta areago COVID-19ak ekarri digun guztiarekin.

Zergatik ari da Sustrai alegazioak sustatzen Nafarroan dagoen eguzki-eta eoliko-poligono proiektu andanaren aurka?

Ardo kopa bat ona da, baina botila bat

edo bi kolpetik, ez. Oraingo, guztira 36 dira inpaktu eta tamaina handiko proiektuak. Horiek dira Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak azkenaldi honetan Nafarroan jendaurrean aurkeztu dituzten proiektuak. Baina kopuru oso askoz handiagoa izango da asteak eta hilabeteak pasatu ahala. Hau tsunami bat da eta uholde horren helburua ez da krisialdia konpontzen laguntzea, baizik eta enpresa eta pertsona batzuen poltsikoak are gehiago gizentzea.

Muineko arazoa da Nafarroan kontsumitzen dugun energia guztiaren %21 baino ez dela elektrizitatea. Energia berriztagarriak soluziobidea dira, baldin eta ekoizpen eredu aldutzen bada eta kontsumoa jaisten bada.

Horregatik martxan dauden proiektu guztiak geldiaraztea eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari. Beharrezkoa ikusten dugulako eredu energetikoaren inguruko hausnarketa eta plangintza prozesu egoki bat irekitzea.

Gizarte trinkoa eta ongi zaindua eduki nahi duen edozein gobernu sektore energetikoaren nazionalizazioaren alde egin beharko luke. Teknologia ez dizki-

gu arazoak konponduko, eta irtenbidea ez da hazten jarraitzea, energia berriztagarriekin bada ere.

Zergatik salatu duzue Nafarroako Gobernuak birziklatze datuak "edertzen" dituela?

Iaz bildutako zaborraren %47 berrera-biltzeko edo birziklatzeko prestatu zela esan zuen duela gutxi gobernuak, baina prozesu batzuk ezin dira birziklatze gisa hartu.

Nafarroako Hondakinen Planak eta Europako zuzentzaruek hondakinen %50 birziklatzeko helburua ezarria dute, baina hemen egun egiten den hondakinen kudeaketarekin ezinezkoa da helburu hori erdiestea. Mankomunitate gehienek hondakin organikoen parte handia enpresa pribatuen esku uzten dituzte biometaniza ditzaten. Hondakin horiek ez dira birziklatu; are gehiago, kutsadura toxikoak sortzen dituzte tratamendu horien bidez eta hori oso larria da.

Guk proposatzen duguna da hondakin kopurua murriztea, eta benetako berrerabilpen politika martxan jartzea. Sorburuan banatzeko eredu batek bai zik ez du bermatuko Europako legediak

zehazten dituen helburuak erdiestea. Bide horretan, Sakanako Mankomunitatean egiten ari direna eredugarria da: atez ateko bilteta eta hondakinen tratamendu publikoa. Organikoan %80 lortu dute. Ni Lakuntzan bizi naiz eta badakit nola jokatzeko ari den.

Honekin batera, hondakin planta txikiak sustatu behar dira eta konposta erabili ahalik eta gertuen. Iruñerrian aukera zoragarria dugu inguruko soro guztiak hiriaren zabor organikoen konpostarekin ongarritzeko. Soluziobidea ez da planta erraldoiak egitea, orain Imarkoainen egin nahi duten bezala, edo erraustegiak. Hondakinen kudeaketa ezin da esku pribatuetan utzi. Italian mafiak kontrolatzen du hondakinen kudeaketa. Hemen mafiak beste izen batzuk ditu, baina estatu mailan negozioa kontrolatzen dutenak ere mafiosoak dira, eta gero eta hondakin gehiago ekoiztea interesatzen zaie, tona bakoitzeko kobratzen dutelako. Ecoembes enpresak, adibidez, ontziak biltzeagatik eta berrriak egiteagatik kobratzen du. Zergatik ez dira ontzi itzulgarriak egiten, txikiak ginenean bezala edo Alemaniako leku askotan egiten den bezala? ●

zientzia azoka

ekainak 5 de junio

Bilboko Areatza kaia / Muelle del Arenal de Bilbao

GAZTEEN PROIEKTUEN AZOKA

Feria de proyectos científicos AZOKA

Streaming (17:00) Sari-banaketa / Entrega de premios

Antolatzailea **elhuyar** ezagutzuz aldatzea

Babesleak: Bilbao, Bizkaia, erabi, Deusto, UONA, etc.

Kolaboratzaileak: MAGMA, tecnipole, etc.



Injustiziaren garaipena

Indarrean dagoen krisiak erdigunera ekarri du Estatuak ekonomian duen ezinbesteko zeregina. Mendebaldeko herrialde aberatsetako ongizate mailaren etorkizuna kolokan dago eta horri eusteko ere Estatuaren zeregina ezinbestekoa da. Horretarako berme nagusia zerga sistema eta egitura da eta honi buruzko eztabaida saihestezina da egungo testuinguruan. Izan ere, neoliberalismoaren itzalpean oraindik orain zergen igoerak eta, batez ere, aberatsenei zerga gehiago ordaintzeko interbentzio larriak estigmatizatuak daude. Azkenaldian zerga egitura aldatu denean, aberatsei zama jaisteko egin da, horrek inbertsio pribatua sustatuko duelakoan. Baina ebidentzia empirikoak erakusten du, ekuazio hori oso gutxitan suertatu dela. Alegia, aberatsenen aldeko zerga arinketek ez dute inbertsio produktiboaren igoera nabarmenik ekarri 2008ko atzeraldiaren ondoren.

Artikuluaren goiburua bera duen liburua (*Injustiziaren garaipena*) argitaratu berri dute Emmanuel Saez eta Gabriel Zucman irakasleek, eta argibide ugari dakar orain arteko zerga eredu gaitzetzeko asmoarekin. Zorrotza eta sakona bezain praktikoa eta ausarta den lan honek egoeraren gordintasuna azaltzen du. Estatuaren baliabideak gero eta eskasagoak dira, herritarrentzat presio fiskala indartsua den arren aberatsenentzat gero eta apalagoa da eta honek desber-

Estatuaren baliabideak gero eta eskasagoak dira, herritarrentzat presio fiskala indartsua den arren aberatsenentzat gero eta apalagoa da eta honek desberdintasunen igoera indartsua dakar

dintasunen igoera indartsua dakar.

Eskaintzen dituen datu ugarien artean, Amerikako Estatu Batuetako 1980 eta 2018 urteen arteko errenta bilakaera azpimarratzekoa da. Biztanlegoaren %90aren sarrera errealak ez dira aldatu azken 40 urtetan eta, aldiz, errenta garaiena duen %0,1arentzat bere sarrera errealak %320 igo dira. Egileek erakusten dute egoera despereko hau aberatsetek gero eta zerga gutxiago ordaintzen dutelako gertatzen dela. Liburuak zehaztasun handiz erakusten du honen guztiaren arrazoia, eta zerga eredu atzerakoa mantentzeko argudio eta topiko guztiak eraisten ditu. Hala nola, zergen igoerak diru biltzea behar duela



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA


edo ekintzaitzeta ahultzen duela errefusatzen dute eta gogora ekartzen dute, Roosevelt eta ondoren errepublikarrak beraiek, izan zirela gerra ostean diru biltzea handitzeko aberatsenei zama handitu zietenak.

Nolanahi ere, suntsitzen dute dogma nagusia ondokoa da: zama saihesteko mekanismo ugari dituztelakoan, ezinezkoa dela ezein neurri hartzea aberatsenek eta enpresa erraldoiek zergak ordain ditzaten. Aitzitik, lanak oso garbi frogatzen du ez dagoela inolako oztopo teknikorik horretarako eta giltzarria borondate politikoa dela, noski. Asko aipatzen den mantra da, Azpiatzuk, Calviñok eta abarrek diotena, krisiagatik orain ez dela zergak igotzeko garaia, alegia. Bada egileek kontrakoa diote, hain justu, krisialdian zergak handitzea beharrezkoa dela. Eisenhower presidentek II. Mundu Gerraren ostean aberatsenek ordaintzen zuten gehiengo tipoa %91ra igo zuela ohartarazten dute. Egun, Bidenek zerga ereduaren norabide aldatzea iragartzen duen arren, Zucmanek berak zera ondorioztatzen du *New York Times* egunkariarentzat egindako azterketa batean: AEBetan aurreikusten diren zerga neurri berri guztiak indarrean sartuko balira ere, aberatsenen gaineko zerga presioa 90eko hamarkadaren erdian zeukaten mailaren azpian geratuko litzateke. Bada zer hobetu zerga politikan. ●

Adierazpen askatasunaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Egungo garaian, adierazpen askatasuna edonon eta noiznahi gorai-patua den eskubidea da: eskubide politiko, sozial, praktiko eta moralizat dauka gure gizarteak. Bizkitartean, adierazpen askatasunaren izenean, nahaskeria sozialak, zuzengabekeriak eta bortizkeriak hedatzen ikus daitezke, bereziki sareko mundu birtualean, baina espazio publiko materialean ere bai.

Adierazpen askatasunaz preseski, bi liburu interesgarri irakurri ditut berriki, frantsesez: Pierre Vesperi-*ren La philosophie antique* (Antzinateko filosofia, Fayard, 2019) eta Monique Canto-Sperber-en *Sauver la liberté d'expression* (Adierazpen askatasuna salbatu, Albin Michel, 2021). Lehenak Europa men-debaldeko filosofiaren historia manera arrunt berri batez argitzen du, eta frogatzen on genukeela Antzinateko filosofoen uretik edatea. Hain zuzen ere, Vesperi-*niren* ustez, europarron mentalitatea giristinotasunean errotu hiru printzipio hauetan datza: egia baten existentzia absolutua eta egia horren bilatzeko baitezpadako premia, doktrinaren bidez; arima eta gorputzaren arteko bereizketa; jende kategoria oso batzuen bazterketa (hala nola emazteak). Alderantziz, lehenagoko

philosophia elkarrizketa libre eta anizkoitzez osatua zen: eztabaidak ez ziren dogma-gatazkak, metafisikatik at zeuden. Joko atsegina zen *philosophia*, arau berezi batzuk ahalbidetu joko etiko eta estetiko emankorra, bizitzan eta jendartean zut egoteko metodo (edo bide) praktikoak eskaintzen zituen.

Monique Canto-Sperberrek, berriz, adierazpen askatasuna kontzeptu liberalaren hiru mendeko historiara lotu du, erakutsiz egun hala deitzen dugunak guti ikustekorik duela hastapeneko nozioarekin. Canto-Sperberren aburuz, interneten bereziki, jendea ez da arau etiko amankomunak errespetatuz solastatzen. Arriskua da adierazpen askatasun berri horren izenean iritzi dogmatikoen arteko polemika antzuz bete dadin espazio publikoa. Muga batzuk ez badira ezartzen –muga pragmatikoak, ez moralak–, ezin da elkar hitz egin, eta ideiak ulergaitzak bihur daitezke, denon galbide, dio autoreak. Vesperi-*nik* bezalaxe, Canto-Sperberrek amesten du espazio publikoa bilaka dadin gizabanakoen joko sanoa, jendetasunezkoa, haragiztatua, arraileria salbagarriz lagundua.

Pentsatzen dut eskolak eta unibertsitateak izan beharko luketela aska-

tasun adierazpenarekin sanoki jostatzeko gune pribilegiatua, eta, nola ez, arraileria ernearena ere bai. Alta, horrelakorik ezinezkoa da, lehen eta bigarren mailako irakaskuntza publikoan behintzat. Irakaskuntza dogmatikoa da gomendatua dena: ideiak hola-hola inposatu behar dira, edo ikasleei egia ofiziala atzemanarazi behar zaie, baina hondarreen berdin da. Unibertsitatean, libertate gehiago bada eztabaidaren eta irriak erakartzen duen gibelapenaren balioak transmititzeko, baina beldur naiz etorkizunean Estatuak eta gizarteak unibertsitate irakasleei gero eta gehiago galdegin diezaien ikasleak dogmaz eta doktrinaz asetzea.

Ez dakit jendartea aski zohituko den seriooki jostatzen hasteko, egiez, katiximez eta predikuez trufatzeko, ez eta ere zein heinetan posible litzatekeen gizarteak iraun dezan bere buruarekin horrela jostetan. Anartean, garai zalapartatsu hauetan, gozatzen ditut eztabaida sakonak nire posizioak partekatzen ez dituzten pertsona *philosophia* zaleekin, eta maite ditudan jendearekin prezatzen ere arraileria une guziak. Zorion tarte berdinak zuri ere gozamen iturri izan bekizkizu, irakurle! ●

Libertatea, eskubideak eta beste landare batzuk



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA MINER**
TXISTULARIA

Urte batzuk badira *Libertatea*, arrantzeleen abesti zaharra ekarri nuela orri hauetara:

*Libertatea eskatu diogu
herri hontako Alkate jaunari
eta jendea alegratzera
gaur gera gu honera etorri*

Aurrenekoz entzun nuenean, Franco-ren garai ilunetako gaztetxo ni, aldarri subertsiboa iruditu zitzaidan. Baina kontu arruntagoa zen libertatea: udaletxeetan, ordainketa bidez, lortzen zen baimen berezia. Ordu txikietan, isunik jaso gabe parrandan ibili ahal izateko txartela. Zerikusirik ez egungo ohiturekin: gehienez, gaueko 24ak arte ematen baitzen. XX. mendearen erdira arte luzatu zen baimen horien eskatu beharra hainbat herritan.

Hitz sakratua nahiko baxatua zegoen beraz. Beherago eraman dute Madrilgo azken hauteskundeetan hainbesteko arrakasta lortu duen leloan. Idolo faltsu bihurtu eta jende andana hura gurtzen ikusi dugu.

Espainiako Estatuan alarma egoera amaitzean antolatutako desfase festetan parte hartu zuen gazte baten adierazpenak entzun nituen telebistako berrietan: "Gure aiton-amonek eta gurasoek ere parrandak egin zituzten gaztetan. Guk ere eskubidea dugu". Historian doktore tesia behar zuen izan gazteak.

Pertsonen edo taldeen eskubideak ez daude zeruan idatzita letra handi argitsuetan, denok ikus ditzagun eta euren ezinbestekotasuna onar dezagun. Eskubideak eraikuntza kulturalak dira, historikoak. Maiz pertsona askoren lanez, sakrifizioz eta eskuzabaltasunez lortuak. Sarriegi espetxe urteen edo heriotz absurduen truke irabazitakoak. Demokrazia bera, aldaera guztietan, sorkuntza kulturala da.

Eskubideak landareak edo ume txikiak bezalakoak dira, egunero zaindu behar, laztankiro, bestela aise galtzen direlako. Harritzko aroan, indartsuak gaztekoa ematen zion ahulari eta menderatu egiten zuen, morroi bihurtzen. Emakumeekin gertatutakoa adibide. Oraindik ere oso antzekoak jazotzen dira munduko bazter askotan. Hemen bertan ere bai, disimuloz egiten den arren.

Pertsonak oso aldakorrek gara, bereziki beldurrak edo harropuzkeriak hartzen gaituenean, eta saldo handitan oso zirrikitu estua uzten diogu pentsamendu burutsuari. Horregatik oso erraza da mugimendu espasmodikoa eragitea gure eskasien irinez oratu eta masa deitzen den horretan.

Gizartearen buruzagiak horretan hasten direnean, iruzurra egiten ari dira, purtzilari bihurtzen. Ez dute gure bidea markatzea merezi, arrisku handiegia da. Gaur ez gara konturatuko agian. Baina etzi negar egingo dugu eta orduan besteei errua leporatuko. ●

Kantuterapia



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Gorabehera emozional handiekin nabil azken aldian. Batzuetan, oso berri txiki on batek goian jartzen nau. Baina, era berean, kontrara ere egoten naiz, behean. Eguneroko arazok eta estres arruntak birrikak estutu eta antsiatuta naukate. Ingurutik eta mundutik datozkigun albiste ankerrek ere ez dute laguntzen arnasten. Palestinaren kontrako Israelen sarraskiak, Zaldibarko zabortegean Joaquin Beltranen gorpua bilatzeari uzteak ez didate lagatzen bular aldea nasaitzen, gehiago lauskitzen didate arnasa aparatua. Antsietatea. Pandemiak berak handitu egiten digu ondoeza,

eta izurrite sasoi honetan askoren egoera dela badakit.

Halere, itolarriak jotzen nauenerako topatu dut irtenbidea. Ez da behin betikoa, baina momentuko estutasuna baretzen dit, gorako bidean jarri. Bizitzak estu hartzen nauenean, automobilean lanerako joan-etorrietan, musika jarri eta oihuka kantatzen dut, dena emanda. Kantu zahar eta betikoak, epikoak, arrandiatsuak. Baretu eta alaitasuna eragiten dit horrela abesteak. Estutasuna desegin egiten zait, arnasa hartzeko modua onera etorri. Zoragarria da. Proba ezazue!

Funtziona. ●

Gizartea, erakundeak, herria



MIKEL IRIZAR
EUSKALGILEA

Hamarkadetan ametsa izan dut gizarte ekimena eta erakundeen ahalmena uztarrarian lotzea. Erabat sinetsita nago hori dela herri moduan aurrera egiteko daukagun bide bakarra. Gure erakundeak ahulak dira, eta pandemiak eman digu horren neurria; gure gizartea ez dago bere onenean, eta pandemiak areagotu egin ditu bestela ere bistaratzen ari ziren hainbat ahulezia. Euskal herrigintza eraginkortasuna galtzen ari da, bi arrazoi medio: inertzia indartsuak daudelako asimilazioaren alde, eta ez dugulako behar beste indar egiten haiei aurre egiteko. Gizartea, erakundeak eta herria lerro berean jarri beharrean gaude, iraungo badugu.

Horretarako, ordea, mesfidantza asko ikusten ditut oraindik ere. Agerikoa da ez gaudela duela hamar urteko egoeran, elkarrenganako begirune handiagoa dagoela gaur, orduan zegoena baino. Erakunde publikoetan kolore bat da nagusi eta gizarte dinamiketan beste bat (bestea, zintzoago esanda); eta horrek baldintzatu egiten ditu harremanak,

Aurrean daukagun arriskua da asimilazio erabatekoa, herri moduan ez pentsatzea, etorkizuna euskaratik ez irudikatzea

behar beste gainditu gabe dauzkagulako aurreiritziak. Oraindik ere ohikoa da erakunde publikoak gizarte eragilea susmopean jartzea, eta diru-laguntza edo kontratu bidez mende hartu nahi izatea, gehiegi endredatu ez dezan; eta, kontrara, gizarte eragilea erakunde publikoaren beldur izatea, hark bere indar posizioa baliatu dezakeelakoa honen aurka egiteko.

Baina, mesedez, ez dezagun perspektiba galdu. Herri gisa, eta hiztun komunitate gisa daukagun arazo nagusia ez da diru-laguntza bat edo elkarrengana-

nako mesfidantza; aurrean daukagun arriskua da asimilazio erabatekoa, herri moduan ez pentsatzea, etorkizuna euskaratik ez irudikatzea. Hor daukagu lehentasun komuna. Eta bilakaera horri etena jartzeko alboratu beharrean gaude interes txikiak, setakeriak, eta etxeko haize erroten aurkako epopeiak. Gizarte ekimena eta erakundeen ahalmena sendo uztartuta aukera izan dezakegu galbideari aurre egiteko. Lankidetzeta publiko-soziala da herri garapena elikatzeke daukagun energia iturririk ahaltsuena, ia bakarra.

Ezagutzen ditut norabide horretan egosten ari diren prozesuak, itxaropena pizten dutenak. Horietan ere, aldirio agertzen dira atzera begirako beldurrak, baina gero eta posibleago ikusten da gainditzea. Kontua da, prebentzio guztien ginetik argi izan behar dugula denok biziraupena daukagula jokoan erronka honetan, aurrera ez egiteak amildegira hurbiltzen gaituela. Apokaliptisia ez dut gogoko, baina une honetan *japilandia* ikusten dut arriskutsuago. ●

Basherrri
ERAKUNDE KONTUPO TALDEA ETA KOPERTUTAK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus

Etengabeko Nakba-ren normalizazioaren aurka



ESTER MUÑOZ NOGAL
ASKAPENA ERAKUNDE
INTERNAZIONALISTAKO KIDEA

Urtero, maiatzaren 15ean, Palestinako Nakba eguna gogoratzen dugu (“hondamendia”, arabieraz). Egun horretan gogora ekartzen dugu mugimendu sionistak palestinarren garbiketa etnikoa hasi zuela, 1948an Israelgo Estatu sortzeko. 750.000 - 800.000 palestinatar bortxaz kanporatuta sortu zen Estatu; ehunka herri suntsitu ziren, sarraskiak egin, palestinarren jabetzak konfiskatu, hiri eta herrien izenak aldatu eta, are, bertakoez bestelako landare-espezie berriak sartu ziren. Bertan Palestina existitu zela ezkutatzeko. Hori guztia, inperialismoaren aliatu nagusietako bat Ekialde Hurbilean egotea legitimatzeko.

Gaur egun ere, Estatu Sionista potentzia inperialista nagusien (AEB eta EB) konplizitate esplizituaren babesean dago, nazioarteko legedia etengabe urratzen duen arren inpunitate osoa aitortzen diotenak. Negoziazio-prozesuek proiektu sionista hedatzeko baino ez dute balio izan, palestinarren aurka etengabeko Nakba eta apartheid batetik, lurraldeak okupatu, palestinarren kanporatuz eta hilez.

Horraino datuak, historia eta gertakariak. Denok ondo baino hobeto ezagutzen ditugun datuak eta “urtero lez” gogora ekartzen ditugunak. “Urtero lez” idatzi eta tripa nahasi zaizkit.

Palestinatar herriarekiko elkartzunak gure borrokari egiten dion ekarpenaren garrantzia azpimarratu nahi dut. Instituzio liberalen mugetatik haragoko benetako elkartzuna. Txio eta titularretatik harago doana. Testu hau prestatu bitartean, Israelgo autoritateak Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzoko familia palestinarren euren etxeetatik kanporatzen ari dira, gerora kolonoek okupa ditzaten; 48ko lurraldeetan, israeldar taldeak herriar “arabiarren” erasotzen ari dira, bai eta euren etxe eta saltokiak ere, palestinarrak izate hutsagatik; eta Gazan

Erakunde eta eragileen ehunka komunikaturekin egiten dut topo, bi aldeak hitz egitera esertzeko beharra berresten dute, zapaltzaileak eta zapalduak parekatuz

Israelgo armada sarraskia egiten ari da, beste behin ere. Jada berrehun palestinartetik gora erailak. Eta berrehundik gora diot artikulu hau idazteko prozesuan eraildako palestinarren kopuru makabroa eguneratzen joan behar izan dudalako, eta argitaratzen denerako ziur aski zaharkitua geratuko delakoan nago.

Eta bitartean –Palestinaren okupazioak suposatzen duenaren zati bat besterik ez dena– nik “urtero lez” edo “berriro ere” idazten dut berriz. Hitz horiek gero eta nazka gehiago ematen didate.

“Gaza bonbardatzen ari dira berriz”. Berriz ere, “euskal instituzio honek edo besteak Israelgo ordezkari bat gonbidatu du”. Interneten sartu eta CAF jarri dut bilatzailean. Jerusalem lurralde okupatuaren tranbia eraikitzeko proiektuarekin aurrera segitzen duen enpresa, palestinaren lurralde lapurtzen lagundu eta nazioarteko legedia urratzen duena. Eta berri guztiak kontratu berriei lotutakoak direla ikusten dut. Eta ez da deus gertatzen.

Eta maila guztietako erakunde eta eragileen ehunka komunikaturekin egiten dut topo, bi aldeak hitz egitera esertzeko beharra berresten dute, zapaltzaileak eta zapalduak parekatuz. Eta oka

egiteko gogoia sartzen zait.

Izan ere, herrien askapenean sinesten duen inork ezin du ez onartu, ez normalizatu bere askapenaren alde borrokatzen duen herri baten zapalkuntza, are gutxiago Israelgo Estatu moduko entitate kolonial eta inperialista baten aldetik denean.

Izan ere, Palestinako herria askatzeko borroka herrien askapenerako borroka da, zapalkuntza eragiten duten inperialismoaren eta sistema kapitalistaren kontrakoa. Palestinarrak zapaltzen dituztenak hemen bizitza prekarioetara kondentzen gaituzten berberak dira.

Inork ez lukeelako etengabe negoziatzen eta zapaltzen duenaren eta bere herriaren suntsipena bilatzen duenaren baldintzak onartzera behartuta egon beharko; interes inperialistentzat erabilgarria denez, zapalkuntza mantentzen duen nazioarteko komunitateak berak behartua.

Testu honek ezer gutxirako eman dezake, amorru pixka bat ateratzeko eta Palestinarekiko elkartzun internazionalista indartzeko premia dagoela aldarrikatzeko ez bada. Gutxienez, bertatik eskatu diguten BDZ kanpainarekin bat eginez, erantzun irmo, ausart eta eraginkorra emateko gai izateko; koloniala, inperialista eta erabat arrazista den proiektu bat normalizatzeko ahaleginarekin eta sionismoarekin Euskal Herrian ematen diren konplizitate guztiei amaiera emateko.

Gainontzekoan, palestinarrangandik irakurri, entzun eta informatu zaitezte. Haiek dira afera honetan axola dutenak. Haiek dira euren etxeetatik kanporatuak izateari uko egiten diotenak. Jazarpenari, diskriminazioari eta zapalkuntzari aurre egiten diotenak. Eta erresistentzia eta duintasun eredu horren aurrean, nork bere lubakitik, euren ondoan borrokatu behar dugu. ●



LEHEN HEZKUNTZA ETA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

NOLA ERAGIN DIO PANDEMIAK IKASGELA BARRUKO BIZITZARI?

Bukatzeaz da COVID-19 ikasturtea. Maskarekin, distantziekin, burbuilatan eta hamarraldiekin ikasi behar izan dute ikasleek curriculum berbera. Osasun neurriak konpentsatzeko neurri goxagarririk hartzea ez da kudeaketa planetan egon: irudi luke gorputzak eta egoera emozionalek ez dutela eraginik ikaskuntza prozesuan. Nola bizi izan da ikasturtea gela barruetan? Eskolaz eskola tailerrak ematen dituzten bi kide elkarrizketatu ditugu: bertsolaritza lantzen duen Estitxu Arozena eta sexualitatea jorratzen duen Jon Ziarsolo.



kastetxe askotako geletara sartzen diren bi kiderengana jo dugu, aurtengo ikasturteari tenperatura hartzeko asmoz. Harremanak Hezkuntza Elkarteak 25 urte inguru daramatza eskolaz eskola sexualitatea lantzen. Bertako kide den Jon Ziarsolok zortzi urte egin ditu jardun honetan: “Ikasturtean zehar 40-50 ikastetxe eta herri pasatzen ditugu, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik hasi eta batxilerrera eta lanbide heziketara. Ikasleei, irakasleei eta gurasoei ematen dizkiegu tailerrak”, azaldu

du. Gipuzkoan eta Bizkaian aritzen dira gehienbat, eta herri oso txikiak eta hiri handiak bisitatzen dituzte. Estitxu Arozena 1998tik ari da ikastetxeetan bertsolaritza tailerra ematen, eta Nafarroako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan ematen du 15 saioko programa hau. Ikasturtean zehar Baztan, Malerreka eta Bortzirietako 12 eskolatan izan da, batik bat herri txikietan.

Bakoitzak ikasturte honen oso deskribapen ezberdina egin digu. Nabari da pandemia bera erabat modu ezberdinetan bizitzen ari gara herri, ikastetxe eta etxe bakoitzean.

Arozenak azaldu du ikasturte bukaerara iritsi izana “garaipen” modura bizi dutela ikastetxeek:

“Gogoratu behar da nondik heldu ginen: aurreko ikasturte bukaera presentziala izan gabe. Hasi ginenean neurrietara ohitu behar izan genuen baina ikasturteak behin martxa hartu duenean, ez da hain gaizki joan. Sinatuko genuke hone-lako ikasturtea iragan irailean”.

Ziarsolok orde, bestelako emozio batzuk azaleratu ditu ikasturtearen errebaso egiterakoan: “Aurtengo urtea berezia izan da, arau eta erabaki berriak hartu direlako eta horiek eragina izan dutelako. Ikasturte hasieran esaten zen musukoa erabiltzea, distantzia eta abar ‘anekdotikoak’ direla baina ikusi da ez direla anekdotikoak izan, benetan eragin zuzena ari direla izaten haur, nerabe eta orokorrean hezkuntza osatzen dugun eragile guztiengan. Gure tailerretan sexualitatea, emozioak, berdin arteko harremanak lantzen ditugu. Harremanen inguruko gai pertsonalak lantzen ditugunez, betidanik azalerrak dira emozioak, eta aurten emozio negatiboak gailentzen direla ikusi dugu. Haurrak triste daude, apatiko eta hori Lehen Hezkuntzako 1. mailan ikustea etsigarria da. Nerabeen artean gehien gailentzen ari den sentipena antsietatea da eta tristura ere asko agertzen da. Hau da, poza, alaitasuna, adin hauetan oso naturalak diren sentipenak, azalerrak zaila da”.

“Lehen Hezkuntzan faltan dutena mugimendua da. Nabarmena da”

Jon Ziarsolo

Artikulu honetan zerrendatu nahi izan ditugu ikasgela barruetan aurten baldintza bereziek eraginda somatu diren gabeziak. Horiez kontziente izatea ezinbesteko urratsa baita ikasleen beharrik asetzen asmatzeko. Bada esanguratsua Ziarsolori hainbat ikastetxetan gertatu zaiona: “‘Zer moduz zaudete?’ galdetuz hasten dut sexualitate tailerra, eta ikastetxe batean baino gehiagotan erantzun didate ikasleek ‘lehena zara galdetu diguna’”.

MUGIMENDU FALTAN GATAZKEK GORA

Ziarsolok jarraitu du azaltzen zerk eragiten duen hurrengan ondorena: “Lehen Hezkuntzan faltan dutena mugimendua da. Nabarmena da. Sexualitate tailerretan, gure lan egiteko modua oso dinamikoa da, arlo ezberdinak lantzeko eraginkorra hori delako: talde dinamikak egitea eta abar. Aurten ezin dugu horrela egin. Beraz, hitza erabiltzen dugu asko, bakoitza bere tokian egon behar da inora mugitu gabe... Oso indibidualak bihurtu dira tailerrak”. Metodologia aldetik, egoerak baldintza handiak jarri ditu aurtengoan, eta eskola gehienetan talde lanak “bakoitza bere ordenagailutik aritzea elkarrekin osatzen ari garen dokumentu baten gainean” esan nahi du. Arozenak adierazi du “distantziak, U formako gelarik ez egoteak eta denak banaka eserita egoteak ariketa batzuetan” eragiten duela bertsolaritza lantzerakoan ere.

Horrelako eskolak jaso ostean, jolasgaraira irteten dira ikasleak, eta han ere egoera aldatu dela azaldu du Ziarsolok: “Lehen Hezkuntzan ikusten dugu jolasgaraira joan ondoren, krispatuta itzultzen direla. Nabarmena da atsedean tarte horretan ez direla askatu: patioa ikastetxe batzuetan zintekin mugatuta dago, gelaka banatuta, burbuilak dire-

la... Ikasturte amaiera aldera ikusten da baloia edo jolasteko zenbait gailu uzten dizkietela baina ordura arte batere ez. Ezin dute kontakturik izan... horrek presioa eta ezinegona areagotzen du Lehen Hezkuntzan, zeren eta mugimendua behar dute: gelan eserita egoteak eskatzen du ondoren distentsiorako tarte bat izatea. Gelan egoera honek tentsio handia eragiten die, eta ondoren gorputzak naturalki distentsioa bilatzen du, hau da, plazera. Eta eskolak ez badio aukera hori ematen distentsiorako, liskarrak sortzen dira, batez ere jolasgaraitik bueltan, edo arratsaldetan, eguna luzatzen doanean. Nabarmena da”. Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1 eta 2 mailetan mugimendua bultzatu behar dela azpimarratu du Ziarsolok: “Ez dugu esaten kirol lehiakorra egin behar denik, baina kanpoko ekintza gehiago bultzatu behar dira”.

Arozenak ikusi dio alde onik aurtengo egoerak baldintzatutako patioaren berrantolaketari: “Lehenago baloia zen nagusi, aurten espazioa banatzeko modu desberdinak ikusi dira. Lehen gauza batzuk egiten zituzten ikasleek patioan, orain beste batzuk”.

FAMILIA ETA GORPUTZA LANTZEKO ZAILTASUNAK

Sexualitate tailerlean familiaren gaia





ENERITZ ARZALLUS

lantzen dute ereduak anitzak direla ikusarazteko, bai sexu joeren aldetik, bai kide kopuru eta rolen aldetik... "Aurten oso zaila egin zaigu gai hori lantzea: batetik, banaketa asko egon dira; bestetik, hamarraldiak direla-eta zenbait familiantan ordu asko pasatu dituzte elkarrekin eta ez dakigu horietan zer egoera eman diren... Familia eremu pribatua da baina hurrek etxean bizi dutena eskolara eramaten dute eta gure tailerretan agertzen dira egoera horiek. Familia lantzerakoan oso kontuz ibili behar izan dugu, sentipen asko agertu baitira: negar asko egon da...". Ikasturte hasieran eta erdialdean batez ere hurrek zituzten zailtasunak ikusita, Harremanak elkarteak erabaki zuen familiaren lanketa pixka bat alde batera uztea.

Ziarsolok, azken urteetako beste joera bat ere areagotu dela azaldu du: "Gorputz ereduak eta gorputzaren gaia lantzeko ezintasuna. Lehen oso kontuz aritu behar genuen, autoestimua eta autopertzepzioa oso ukituta dituzte-eta. Baina orain jada ezin da, gorputza gai bezala plazaratzen dugunean, ez dute landu nahi. Bakarrik egote honek, sozializazio falta honek, areagotu du gabezia". Harremanak elkartean gai honen zergatiak ari dira aztertzen: "Arazo hori lehendik zetorren, eta orain ez gaude besteen aurrean hain ikusgarri. Eta orduan, orain zergatik ditugu gorputza onartzeko arazo gehiago? Pandemia garaian gorpu-

tzaren autoirudiarekiko presioa gehiago handitu da emakumeengan. Emakumeek beren gorputzaren inguruan hitz egiteko zailtasun asko dituzte".

JENDAURREKO TREBEZIAK LANTZEKO PLAZARIK EZ

Arozenak oroitarazi du bigarren ikasturte bukaera honetan ere ikasleek ez dutela herritarren aurrean bertso emanlaririk, ez antzerkirik ez antzekorik egingo: "Bertsotan egiten dakienak eta 14-18 urte arteko Eskolarteko Txapelketan parte hartzen duenak, bada hantxe kantatuko du. Baina baditugu 12-13-14 urte betetzear diren ikasleak, bi urtez jendaurrean deus egin gabeak, ezta aurrez prestatutako agur bat ere! Horrek epe motz eta ertainera zer ondorio izango ditu? 14 urte betetakoan zuzenean Eskolartekora bidali behar al ditugu, aurreko prozesua egin gabe, jendaurreko konfiantza landu gabe? Bi urtez jaialditxo horiek egin gabe egoteak ekarri dezake zailtasunik. Ez diegu non kantaturik eman, horrek kezkatzen nau".

"EZER EZ ETA FESTA", HAIN TXARRA EZ DA

Aisialdia eta batetik besterako mugimenduak murriztu izanak bere alde ona ere izan duela azpimarratu du Arozenak: "Ikastetxeetara bertso tailerra ematera sartzen garenean, ikasleek fresko hartzen gaituzte. Aurten, gainera, aktibita-

teak oso mugatuta izan dituzte, ez dute irteerarik ez deus izan, beraz, norbait berria ikastetxera etortzea inoiz baino eskertuagoa izan da. Konpetentziarik ezak badu bere alde ona, zerbait antolatzen baduzu beti izango da ona, ez dugu-lako beste ezer".

"Herri txikietan ondorioak gutxiago nabaritu dira. Izan ere, dentsitatea baldintza handia da"

Estitxu Arozena

Klaseko bizitzak balioa irabazi duela gehitu du: "Asteburua zozo joan bazait, astelehenean lagunekin eskolara joatea ez da hain txarra. Egiten ahal dena apreziatzen ikasi dugula iruditzen zait, eta bagenuen horren beharra". Egoerak *carpe diem* jarrera bultzatu duela dio, "hemen eta orain" kontzientziak bizi beharra: "Klase hau 11:00etan bukatzen da eta hau da nire azken bertsoa, edo orain egiten dut edo bukatzen da aukera".

HERRI TXIKIETAN "ZORIONTSUAGO"

Pandemiaren kudeaketa honek ezaguri gisa izan du arauak adin eta toki guztientzat izan direla berdinak, ez dela pertsona bakoitzaren egoerara egokitu. Horrek praktikan oso eragin ezberdinak izan dituela azaldu du Ziarsolok: "Herri txikietara joan garenetan, baserri ingurrunera, eskola txikietara, malgutasun handiagoa eduki ahal izan duteneta... hauetan Lehen Hezkuntzako haurrak ikusi ditugu askoz... ez dakit hitza 'zoriontsuago' den, baina bai, egokiago, aurreko urteekin alderatuta haurrak nahiko antzera aurkitu ditugu. Beraiekin gaiak landu ditugunean, ez da etsipena hainbeste azaldu. Zeren nabarmena da eskolaz kanpo ere aukera izan dutela jolas mota ezberdinak egiteko, kanpoan gehiago ibiltzeko, beraien artean gehiago harremantzeko".

Arozena bat dator horretan: "Herri txikietan ondorioak gutxiago nabaritu

PANTAILETAKO SOZIALIZAZIOA

“Zergatik ari zaigu gure seme edo alaba nerabea konfinamendua eskatzen?”

Jon Ziarsolok sexu heziketa tailerrak ematen ditu ikastetxeetan eta gogoratu du orain arte gurasoek beren seme-alaben sozializazioa sustatu dutela, harremanak, trebezia sozialak, irekitasuna... : “Orain horren guztiaren kontra goaz. Guraso eta hezitzaileok badakigu haur eta nerabeek beren garapenerako hori behar dutela, baina orain egoerak eskatuta nora bidaltzen ditugu? Bakardadera eta pantailalara. Eta askotan, hor uzten ditugu. Gaur egun sarean denetik dago. Eta denak balio du gure seme-alabentzat? Edozer gauza onartuko dugu? Pantailen aurrean daudenean ere helduen begirada behar dute”.

Egun kaleak hutsik daude eta haur eta nerabe asko pantailen bidez harremantzen dira. Ziarsolok azaldu duenez, “guraso askok agertzen duten kezka da: zergatik ari zaigu gure seme edo alaba konfinamendu egoerara bueltatzeko eskatzen? Zergatik esaten du egoera horretan oso komodo eta gustura zegoela? Zenbait ikaslek halaxe esaten digute, ‘ni konfinamendu egoerara bueltatuko nintzateke’. Zergatik eskatzen du nerabe batek bakarrik egotea nahiago duela?”. Sexu hezitzaileak jarraitu du azaltzen nerabe batek sozializazioa eta besteekin egotea behar duela, “baina horrek esfortzua eskatzen du, eta sortzen ari den gizarteak bakardadea bultzatzen du, etxean egotea ‘nahi duzuna egiten’, eta nahi duzun hori da pantaila aurrean egotea”. Egoera berrian etxean goxo geratzen ari direnak, lehendik trebezia sozial gutxi zituztenak direla azaldu du, baina zerbait aldatu dela: “Orain arte gurasoak asko arduratu dira sozializazioa bultzatzeko, kirol taldeetan izen emanaz eta abar. Orain ez, bakarrik egotera bideratzen dituzte, eta oso eroso daude”. Ikastetxeetan eta bertso eskoletan bertsoalaritza irakasten duen Arozenak azal-

du du egungo arauak ere eragin dutela kalera ateratzeko zailtasunean: “Familia egonkorrekoa, oinarritzko beharrak ase-ta dituen. Hori da arauak arau eta mugak muga, kalean sozializatzen denaren profila. Beste batzuk *online* egongo dira, inoiz iritsiko ez zaion eredu bati begira. Zerk eragiten du kalean ez egotea? Hasteko, harremanetarako erraztasunak, zeren egun kalera ateratzeko koadrilla bat behar da. Orain eredu launaka edo seinaka da, beraz, zailagoa da bakarrik ateratzea herrian ezagunik ba al dabilen ikustera. Irudi aldetik konplexuak dituenak ere nahiagoko du ez atera. Nahiz dena arautua dagoen egun, batzuk plazan daude behintzat. Hor ez dagoenak kezkatzen nau ni”.

Erreportajearen zehar azaldu da eskolan tentsioa bizi dutela ikasleek. Hori ere lotzen du Ziarsolok etxean geratzeko joerarekin: “Tentsio etengabea bizi dira. Ez daukate lasaitzeko momentu eta espaziorik. Eskolara joaten direnetik etxera itzultzen diren arte tentsioan daude. Asteburutan askotan etxean geratzen dira, zeren ez dute berriz ezeren jopuntu izan nahi, ez dute tentsio momentu gehiago nahi, ez dute lau edo bost dozelako norbaitek kargu hartzerik nahi... etxean egonda lasaitasuna bilatzen dute, pantailaren aurrean orduak ematea... astebukaerako edozein egunetan 8-10-12 ordu pasatzen dituzte pantaila aurrean”. Tentsioaren ondorioz, “plazera falta zaie” gehitu du sexologoak: “Ez plazer sexuala; plazer baizik. Lasaitasuna. Egotea. Partekatzea. Esperimentatzea. Pertsona berriak ezagutzea. Egoera honetan ia beti jende berarekin gaude”. Sare sozialetako harremanek hainbat gauza “falta” dituztela azaldu du: “Begirada, kontaktua, gorputz adierazpena... eta falta da gauzak poliki egitea. Sare sozialetan dena da *ya, azkar*”.

BERTSOA ETA PANTAILAK

“Gazteak hagitik konektatuta bizi dira: Youtube, Netflix, Disney Channel... mundu guztia dugu pantailara ekartzeko moduan. Sortzen ari garen bizitza eredu erabat globala da. Inoiz baino beharrezkoagoa iruditzen zait aisialdi bezala kultura, tradizioa, euskara lantzea” dio Arozenak. Hizkuntzaren gaiarekin jarraitu du: “Ahozkoatasuna erabat galtzen ari da, esaldi batean hiru hizkuntza aditza ez da harritzekoa egun. Eskolatutako haur batek bost ordu ingeles jasoko ditu astean, gaztekeraz beste bost, eta euskaraz beste guztiak. Baina eskola bukatu eta gero, zer hizkuntza da jasotzen dutena? Gazte asko kaskoekin bizi dira, ez dituzte inguruko hizkuntza, doinuak, kantu zaharrak aditzen. Inoiz baino doinutegi eskasagoa ekartzen dute haurrek. Alde horretatik funtzio handia betetzen du bertsoalaritzak, hizkuntza mailan, komunikazio mailan...”.

Beste balio hauek ere nabarmendu ditu: “Egungo bideoak segundotakoak dira eta janari mantsoa aldarrikatzen dugun bezala, bertsoa ere aktibitate mantsoa da. Ez da argiztapena, musika eta dena neurtua dagoen hogeitasegundoko produktu bat. Lasaitasunaren, pazientziaren, arreta mailaren eredu on bat iruditzen zait”.

Eskoletan bertsoalaritza lantzeak eta herrietan bertso eskolak egoteak hainbat funtzio bete ditzake pantailen gizarztean, Arozenak aldarrikatu duenez: “Haur eta gazteek ikustea badagoela hizkuntza bizi bat, gazteak horretan ari direla, saioetara jende asko doala... ikasleei hori dena adieraztea eta herrietan ahokotasuna, trebetasun sozialak, gure kultura eta gure doinutegia transmititzeko espazio bat izatea gero eta garrantzitsuagoa iruditzen zait, kaskoen mundu honetan”.

dira. Izan ere, dentsitatea baldintza handia da. Hiri handi batean bizi bazara eta kalera irteteko ehun lagunek hartzen duten igogailua hartu behar baduzu eta kotxea hartu behar baduzu mendira joateko... arriskua biderkatu egiten da. Lesakan 2.000 lagun bizi gara hainbeste kilometrotan, kalera atera eta lehenbiziko aldapak jada mendira eramaten gaitu... Herrietan askatasun handiagoa bizi izan dugu eta jendeak harremanak izatea errazten du dentsitate gutxiago izateak, arriskurik gabe”.

MASKARADUN KOMUNIKAZIOA

Eskolaz eskola ari diren bi irakasle hauek onartu dute irakasleen jarduna askoz nekagarriagoa dela maskarekin. Ziarsolo: “Klaseak ematea ez da erraza: ez dugu elkar entzuten. Tailerretan ikasleek parte-hartzea bilatzen dugu eta ez dugu jakiten nor ari den hitz egiten”. Arozenak ere azaldu du ez dela trantze xamurra nor mintzo den ez jakitea: “Haur batek botatzen dizu puntu edo ateraldi bat, edo barrez ari da eta ez dakizu seguru nor izan den, ez duzulako ahoaren mugimendua ikusten. Tristeza da komunikazio hori. Begiek komunikatzen dutela esaten da, eta bai, noski, komunikatzen dute, baina ez aurpegia bere osotasunean ikusita bezala. Ikasleek ni ez ikusteak ere kezkatzen nau, irakasle bezala. Txiste bat botatzen duzu eta aurpegia ikusi gabe beti ez da garbi geratzen txisteza dela”.

INPERTSONALAGOA?

Ziarsolok irakasleei ere ematen die sexualitate ikastarua, eta ikasleekin gela barruan landutakoa klase ostean tutoreekin komentatzea gozagarri izan zaio beste urteetan. Aurten, ordea, ezinbestean irakasleen arteko harremana asko aldatu dela azaldu du: “Irakasle gelak lehen elkargune ziren, gainezka egoten ziren, kafe baten bueltan gauza askoz hitz egiten zen... Orain irakasle gelak erdi hutsik daude. Askok aldatu da ikastetxeetako jarduna. Beldurra oso pertsonala eta intimoa da eta irakasle asko klasea bukatutakoan beren gelan gelditzen dira, eta beraz ez dute beste irakasleekin hainbeste partekatzen. Ikasleekin ere jada ez dute kontaktua bilatzen, ezin dutelako, beldurratik. Bilerarik ez dago... Askok inbertsonalagoa bihurtu da hezkuntza sistema”.

Egun irakasleen begirada urrunagokoa dela dio Ziarsolok, “ezinbestean”: “Irakasleak ahal dutena egiten ari dira eta meritua handia daukate. Bere jardun-

naz gain, arau betetzailer ere bihurtu dira eta hori presio handia da beraientzat. Beldurra ez, tentsioa dago ikastetxeetan, ez da egoera normalizatu bat. Hezkuntza egoera goxo batek behar du begirada, behar du kontaktua, behar du gertutasuna. Eta hori da orain ez dagoena: orain distantzia dago”.

Inbertsonaltasuna ikasleen artean ere zabaldu dela azaldu du: “Haurrak ez, baina nerabeak hasi dira maskaraz gain txanoarekin tapatuta ere etortzen klaseara. Orain lotsa ematen die aurkezpenak egiteko momentuan maskara kentzeak ere. Aurpegia estalita eroso sentitzen dira. Kezkagarria da. Estaltzeak zer dakar? Gehiago estaltzea, eta harremanak inbertsonalagoak izatea, eta sentitzen dudana ez esatea, eta uneoro da ‘ni’ sentitzea eta barnera irenstea. Eta anorexia kasuak areagotzen ari dira, nabarmen. Ezinegona ez konpartitzeak hori dakar. Eta esan beharra dago: antsietate eta depresio kasu asko ari gara ikusten. Eta suizidio gogoia, intentzioa. Bere buruaz beste egiteko gaia asko agertzen da nerabeen artean. Nerabeek beraiek esan egiten digute”.

Sexualitatea tailerlean, bi gai hauek lantzea ia ezinezko izan zaie aurten: familia eta gorputza

Nerabeen egoera emozionalak gainezka egin duenaren adierazgarri da, besteak beste, DBHko hainbat ikastetxek Hezkuntza sailari eskatu izana psikologoren bat ikastetxean bertan edo oso hurbil egotea.

Ziarsolok argi du: “Haur eta nerabeek helduen begirada behar dute. Horregatik, eungo arauen barruan, irtenbidea ikasleak talde txikietan biltzea eta heldu baten begirada izatea da. Beharrezko dute sentitzen duten hori heldu batek jasotzea, zeren agian etxean ez daukate aukerarik. Presazkoa, larria da behar hau. Ez da anekdotikoa gertatzen ari dena. Ez da, eta ez da egia ‘haur eta nerabeek denarekin ahal dute!’. Pertsonak gara, laguntza behar dute eta behar dugu”.

Arreta deitzeko eta laguntza eskatzeko

modu gisa ere ulertu daitezke sare sozialetan bidez nerabeen artean zabaldu diren autolesio praktikak.

“DOLU TXIKIAK LANDU BEHAR DIRA”

Bai Arozenak eta bai Ziarsolok azaldu dute urte eta erdi daramagula pandemian, eta urte eta erdi etaparen zati oso handi bat dela haur eta nerabeen bizitzetan. Horregatik, Ziarsoloren hitzetan, “ikasleekin dolu txikiak landu behar dira. Zeren bueltatuko ez diren hainbat egoera bizitzen ari dira. Haur eta nerabeek etapak gainditu behar dituzte eta etapa bartzuk urte eta erdi honetan joan dira edo badoaz. Dolu txiki hauek, kode emozional hauek taldean landu behar dira, zeren bakarrik, dagoeneko askotan gaude. Talde handitan ezin bada, talde txikitik. Eta garrantzitsua da ikasleek heldu bat edukitzea ondoan, emozio hauek jasoko dituen, ulertuko dituen. Ez da terapia. Dolu txikiak lantzea da, dituzten sentipenak partekatzea... Ezinbestekoa da. Eta familiariekin egitea ere garrantzitsua da: eskolak familiariekin egonezinak ere jaso behar ditu”.

Ziarsolok hurrengo ikasturterako zera proposatu du: “Aurrerantzean horrelako osasun erabakiak hartu behar badira, etapaka hartu beharko dira. Ez da gauza bera haur bat etxeratzea edo nerabe bat etxeratzea. Baldintzak kontuan hartu beharko dira. Eta ezin bada, hau da, ezinbestean denentzat arau berak jarri behar badira, ondorioei aurre hartu beharko diegu. Eta batez ere, ikasleei galdetu egingo diegu”. Hainbat ikastetxek arauei buruzko iritzia galdetu izan die ikasleei, baina Ziarsoloren ustez “hori ez da parte-hartzea”. Bere ustez, ikasleengan begirada jarri behar da: “Gazteok, ez dago besterik, erabaki hauek hartu behar dira. Zer behar dituzue? Zer proposatzen duzue? Egin behar den hori zuentzat ahalik eta erosoena izateko, zer egingo dugu? Zer alternatiba ikusten dituzue? Seguru horrela proposamenak aterako zirela. Hori ez da egin, eta gainera ez da tutoretza ordu bakarrean hitz egiteko kontua: ikasturte osoan zehar jarraipen bat egin behar da. Galdetu eta hitz egin”.

Etorkizunari begira jartzean, Arozenaren ustez gakoa da pentsatzea zein aldaketa etorri diren geratzeko, hau da, zein diren luze iraungo duten neurriak edo egoerak. Baldintza horietan pertsonak beren beharrak asetzeko zirrikituak bilatuko dituzten esperantza du: ez da “lehenago dena hobea zen” diskurtsoa hauspotu zalea. ●

JOXE IRIARTE, *BIKILA*

“Ez dut damurik nire ibilbide politikoa ETAn hasi izanarekin”

ETAn hasi ondoren, *Bikila* (Orereta, 1945) Liga Komunista Iraultzailea (LKI) eta Zutikeko buruzagietakoa izan zen urte luzez. Egun Alternatiba eta EH Bildun dago. *Eman Zesarri Zesarrena. Biolentziaren inguruko “errelatoaz” zenbait burutazio* (IKE 1937) liburua idatzi du eta bertan euskal gatazkan azken hamarkadetan gertatutakoaren analisia egiten du. Borrokalari nekazina, jubilatuek Gipuzkoari bizikletaz eman dioten bira prestatzen topatu dugu.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO

Kontakizunaren borrokan gaudela diozu. Zuretzat zer da garrantzitsua kontatzea?

Hostoek ez dezatela basoa ezkutatu. Borroka luzea egon da hemen, horren sus-traiak zapalkuntzan daude eta batzuek nahi dute borroka hori ezabatu terrorismoaren eztabaidaren baitan. Estatuak herri bat zapaltzen du hemen, arazoaren muina hori da; baina egin behar da baita ere horren aurka egon den erresistentziaren azterketa kritikoa. ETaren ibilbidea ere hor sartzen da. Hemen esaten da demokrazia eta terrorismoaren arteko borroka izan dela eta demokraziak irabazi duela, baina ez nago ados horrekin, demokrazia, arrazoi askorengatik, galtzaile atera delako: ez dago autodeterminazio eskubiderik, ETaren aurkako borrokan giza eskubideen aurkako legeak onartu dira, torturatu egin da... Hori guztia, beraz, argi geratu behar da.

Bestetik, hemen egon den beste diskurtso baten arabera, ETarekin borrokatzea iraultzailetasunaren gorenaren zen, eta horrekin ere ez nago ados. ETaren estra-

tegia eta ibilbidean denetarik dago, horien artean oso ilunak eta gaitzesgarriak diren atalak. Helburua eta bidea lotuta daude niretzat, eta ETaren ibilbidean ez da hori gertatu. Hori diot liburuaren titularekin –*Eman Zesarri Zesarrena*–: ETari berea eta estatuari berea.

Estatua eta ETA aipatu dituzu. Nola ikusten duzu EAJ kontakizun honetan?

Une honetan EAJ honako lelo errebisio-nista zabaltzen ari da: ETaren sorrera zorrigaitza izan zen, ez zen sortu behar. Beraz, ez da zilegi diktadura baten aurka armekin altxatzea? Niretzat guztiz zilegi da. Zergatik orduan Eusko Gudarostea 36ko Gerran? EGiko kide ziren [Jokin] Artajo eta [Alberto] Asurmendi ere eskuartearen zuten lehergailuak hil zituen 1969an. Ez dut damurik garai hartan nire ibilbide politikoa ETAn hasi izanarekin.

Zu noiz hasi zinen ETAn?

1964an, 19 urterekin. Oreretako ETako lehenengo talde ofiziala nik antolatu nuen.

Gero zu ETako VI. Biltzarrean geratu zinen, eta borroka armatua utzi zenuten. Zergatik?

Gauzak ez ziren hain azkarrak izan, guk hasieran ez genuen borroka armatua uzteko asmorik. Bilboko Artekalen ETako zuzendaritza ia osoa harrapatu zutenean guk ezin genuen sinetsi, guretzat zuzendaritza garaitu ezina zen. Nire kasuan, 1969an soldaduskatik atera eta kartzela zigor bat bete behar izan nuen. Espetxetik atera eta Gipuzkoako ETako liberatuak deitu zidan, Bilboko bilera batera joateko. Bileran esan zuen ETako liberatu guztiak kartzelan edo erbestean zirela eta, beraz, han ginen zortzi lagunok osatuko genuela behin-behineko Biltzar Ttipia. Ni, beraz, kartzelatik atera berria liberatu egin nintzen eta Zornotzatik Debarainoko eskualdea hartu nuen, Arrasate zentro nuela. Erakundea berrantolatu genuen eta hor ikusi genuen ekintza-errepresioa-ekintza tesi ospetsu hark bazuela akatsa: jar-duera armatua ustez gorantza zihanean, errepresioak moztu egiten zuen eta ez zen aurrera egiten.



ETari buruzko azterketa ere egin genuen, pentsatu genuen talde interklasista izateari utzi behar ziola langileen alderdia bihurtzeko. Baina horrekin batera behar genuen Fronte Nazionala ere –langileen alderdiak gidatua–; tira, oso eskema klasikoa, Vietnamen, Aljerian edo beste hamaika lekutan zegoena. Apurka antolatu genuen erakundea eta hasi ginen prestatzen VI. Biltzarra, 1970ean amaitu zen zatiketarekin, bost urte lehenago ETA Berri eta ETA Zaharraren artean gertatu zen bezala.

Tartean, ekintzekin-eta berdin jarraitzen duzue, beraz.

Bai, eta horietako batean bi milioi peze-edo lortu genituen. Garai hartan indar errepresiboek langile bat hil zuten Granadan, eta guk esan genuen haren familiari diru kopuru bat emango geniola. Horrek lehen istilua ekarri zigun [Juan Jose] Etxaberekin: gure aurkako salaketa egin zuen esanez erresistentziaren diru kopuru bat eman behar geniola espainiarrei. Gure aurka bildu zen nahiko fronte bitxia: Txillardegiren sozialdemokratak,

Beltza [Emilio Lopez Adan] anarkista eta etxabetar militaristak. Madariaga ere hor zegoen. Tartean, gure baitan sortu zen [Jose Mari] Eskubik bideratutako beste lerro bat: Zelula Gorriak. Eskubi guretzat aita santua bezalakoa zen eta esan zigun borroka armatuak hondamendira eramango gintuela, eta utzi egin behar genuela. Zur eta lur utzi gintuen.

Beraz, hiru talde atera ziren VI. Biltzarretik: batetik gu, gehienak borroka armatuarekin jarraitzeko asmoarekin eta militanteen gehiengoarekin; bestetik, Eskubi eta horiek; eta bestetik, Etxabetarrak, talde txikia baina jende onarekin. Ondorengo urtebetea oso nahasia izan zen eta azkenean troskismoaren oinarriak gureganatu genituen apurka. Borroka moldeen kritika ere egin genuen, herriaren matxinada bultzatuko zuen talde armatua nahi genuen eta ez talde militarista txikia. Bizpahiru urte iraun zuen garapen horretan, azkenean bai, ETArekin apurtu genuen talde iraultzaile komunista bihurtzeko. Tarte horretan, adibidez, *Argala* [Jose Miguel Beñaran] eta *Ortzi* [Francisco Letamendia] gure taldetik aldendu ziren.

Gure helburua zen herria antolatzea, agitazioa, jendea kalera ateratzea... Etxabetarrak talde oso txikia ziren, jende onarekin, eta haientzat errazagoa zen bahiketa bat egitea [Behil kontsula], ez zuten aparatuerik eta... Gero joan ziren antolatzen pixkanaka. Guk, berriz, epai-ketaren aurkako herri antolamenduari eman genion garrantzia. Eta baita epai-tuak Burgosko espetxetik ateratzeari ere, baina azken hori gaizki atera zen.

Zuretzat ETAn noiz deslotu ziren estrategia eta bidea?

Batzuen ustez egon zen ETA ona eta ETA txarra. Nire ustez, erakundeak sarritan aldatu egiten dira denboraren baitan, eta beraz, epaitu behar da une historiko zehatz batean zein den bere estrategia eta zeregina. ETA frankismoan bat zen, Trantsizioan beste bat eta sufrimenduen sozializazioaren garaian beste bat. Guk VI. Biltzarren ondoren utzi genuen borroka armatua, baina aitortzen genion ETari horretarako legitimitatea; estatu aparatuen aurka egiten zuen eta herriari minik ez egiteko asmoarekin



aritzen zen. Bazen abantaila moral bat diktadurarekin konparatuta. Morala eta etika gauza konplexuak dira, horretan Troskyrekin ados nago: "Haien morala eta gurea".

Baina bonba autoekin hasten bazara jakinik ezin dituzula haien ondorioak kontrolatu edo saltoki handi batean jarrizko lehergailua indargabetzea poliziaren esku uzten baduzu... Zure helburua ere galtzen ari zara. Garai batean etsaiaren aurka egiten zen, baina gero herritar askoren aurka ere bai, eta hor lausotu zen etsaiaren eta herriaren aurka jotzearena. Hori perbertsioa da. Erreferente hori galtzen baduzu, iraultzarako galduta zaude. Kubako iraultzan ere eztabaidatu zuten ea etsai preso bat torturatu zezaketen ala ez. Nire ustez ez, jakina.

Geroago LKIk eta EMK-k Zutik sortuko zuten. Liburuan ez da horren gainean hitz egiten, baina mundu horretatik gertu egon zen Iraultza, 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadan borroka armatua praktikatu zuen taldea. EMKtik gertuago zegoela uste dut, baina nola eragiten zuen zuen harremanetan?

Zutik sortu orduko ez zen Iraultza talderik. Borroka armatuaren inguruan baziren hainbat esperientzia: ETAk hartu zuen bere bidea, Iparretarrak berea eta Iraultzak berea. Iraultzarena mugimendu sozialak aktibatzeke borroka armatua zen, eta euskal ezker erradikalaren zati batek haren ama ponteko lana egin zuenean, LKIkook ez ginen ados egon. ETAk Champion-en jokatzen zuen estatuaren aurkako aurrez aurrekoan eta Iraultzak eskualdeko ligan. Guk biolentzia antolatua batez ere kaleko mobilizazioetan errepresioaren aurkako autodefentsa gisa ulertzen genuen, eta, batzara erdigunean zegoela, Trantsizio

garaian izan genituen halako esperientzia batzuk Oreretan.

Eta zer egin zenuten Oreretan bada?

Poliziarekin borrokatu. Haiak zetozenean erreprimitzera, kalean egun osoan borrokan aritu behar bazenuen, erantzuteko behar zen antolaketa maila bat. Hori bai, beti herri asanbladaren baitan. Abanguardiek herriaren baitan aritu behar dute, ez herria ordezkatzu.

“

Gure aurka bildu zen nahiko fronte bitxia: Txillardegiren sozialdemokratik, *Beltza* anarkista eta etxabetar militaristak. Madariaga ere hor zegoen”

Gaur egun Alternatibaren zaude, eta hortik EH Bildun. Azken honek orain kongresua bukatu berri du. Nola ikusten duzu?

Sendo. Kongresuan ikusi dut azken hamar urteetan asko argitu eta sendotu dela. Hauteskunde esparruan sendo dago, auzart eta gobernu hartzeko prest. Gobernu hartzeko prest ez dagoena –Leninek zioen bezala– ez da iraultzarako alderdia. Kontua da zein baldintzatan iristen zaren gobernura. Mugimendu sozio-politiko ahula den garaian gobernura iristea arazo izan daiteke, zure programa aurrera eramateko herria mobilizatu ez baduzu, arriskutsua izan daiteke.

Lizarra-Garazin argi ikusi zen ETA geldituz gero ezkerreko indar politiko sendoa antola zitekeela ezker abertzalearen inguruan. Hori gertatu da EH Bildurekin. Eta hortik irakaspen bat: nola lortu den porrot militarra –ETArena– garaipen politikoa bihurtzea, EH Bildu. Oso garrantzitsua da gaur egun EH Bildu moduko indar politikoa izatea eta hor nabil buru-belarri. Edozein modutan, trantsizio garaian gaude oraindik, eta gure erronka da sortzea estatuari aurre egingo dion ezkerreko mugimendu politiko, intsumiso eta soberanista.

Komunismoa berriz ere itzuli da gazteen sektore batera, hor dago Gazte Koordinadora Sozialista. Nola ikusten du mugimendua zu moduko komunista beterano batek?

Kuriosoa da. Sobiet Batasuneko esperientzia ezagutu ez zuten sektore batzuk ari dira berriz Stalin moduko mamutzarrak idolo gisa jartzen. Espainian Frente Obrerok ordezkaten du mundu hori, oso obrerista, komunista eta sektarioa. Euskal Herrikoa desberdina da, baina marxismo ortodoxo zaharraren ezauzgarri guztiak ditu. Harritzen nau mugimendu gazte batek horren irudimen gutxi izatea. Adibidez, harritzen nau feminismoaz egiten duen irakurketak, feminismo neoliberalaren egon badagoen arren, hemengo feminismoak azken urteetan lortu dituen herritarren eta proletarioen mobilizaziorik jendetsuenak. Hala ere, ezkerrean aniztasunari ondo egiten diotela uste dut, beren bidea jorratu behar dute eta kontseilu bakarra emango nieke: argi sektarismoarekin. Sektore horretan badira sei-zazpi talde eta haien artean ezin dute elkar ikusi. Jorratu dezala bakoitzak bere bidea, baina garai bateko sektarismo itsuan erori gabe. ●



AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

Errealitatea komunikatzen, eraldatzera

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA  DANI BLANCO

FAKTORIA

Laudioko Herriko plazatik kilometro batara dago kokatuta, eta milaka paseari igarotzen da ondotik egunero.

Martxan da. Azkenik. Ameskeria zoro hura lehenbizikoz amestu eta bost urtera; aretoa erosi eta hirura; egokitze eta edertze lan luze eta gorabeheratsuen ostean; milaka eta milaka euro lortuz herritarren kreditu txiki interes gabeei esker; milioika izerdi tanta eta ilusio tona zenbatezinak inbertitu eta gero; makina bat proiektu galbidean utzi dituen mundu mailako krisiari gaina hartuta; umilki aldarrikatzen duten *ausakeria* akuilu: Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren ateak irekita daude.

Goizeko 11etan heldu gara Laudiora, Faktoriara. Maiatzak 15 ditu. Lehen begiratuan edonongo ezleku batean kokatutako poligono batean gaudela pentsa dezake ingurunea ezagutzen ez duenak, baina ibai ondoko paseoa jarraituz Laudioako herriko plaza kilometro bakarrera dugu, eta egunero 3.000 lagun igarotzen da hemendik audio eta Amurrio artean bidea eginez.

Atea zeharkatzean, iñurriak lanean hara-hona, urduri edo presaka antean: nola ez, ordu bete barru bada ate irekiera ofiziala –bi aste dira bazkideentzako aurkezpena egin zutela–. Sukalde lanetan alto eginda bisita gidatu azkar baterako gonbita egin digu Gartzen Garaio Faktoriako kideak. Bere urratsak eta azalpenak jarraitu ditugu egur hutezko 750 metro koadro erabilgarrietan zehar.

HAMAIKA ESPAZIO

Sarrerako espazio nagusiak ekitaldi jendetsuenak hartuko ditu (kontzertuak, antzerkiak, haurrentzako jarduerak, hitzaldiak...). Aurrean du oholntza handi bat, eta ezkerreko izkinan haurren jolas librerako espazioa, oraindik erabat amaitu gabea. “Baina bere eremutik kanpoko espazioak ere inbadituko dituzte haurrek seguru”, dio Garaio porrota gogo onez onartuz. Eskuinetik sartu gara sukaldara: taberna funtzioak beteko ditu jarduerak antolatzen direnetan, bai eta ekonomatua irekita dagoenean ere. To-

kiko produktu agroekologikoak kozinatu eta salduko dituzte kantinan, txoko bezala alokatu dezakete ia 480 bazkideek: “Baditugu eztabaida eta erabaki potolo edo deserosoak, oraindik ere barneratzen joan beharko ditugunak: esaterako, ulertzea bazkide izanagatik ezin duzula familia edo lagunartea txokora ekarri, horrek giro erdalduna sortuko badu euskararen arnagune izateko bokazioz sortu dugun Faktorian”. Oholtzaren atzealdean eta sukaldearen aurrean hainbat mahai dituen espazio bat dago, gaur jantokia izango dena. Agertokiaren atzealdean esan dugu, baina aurrealdean esan genezake berdin-berdin, jende gutxiagoko ekitaldietarako alde honetara begira egingo baita emankizuna. Alde batera edo bestera begiratu, formatu txikian edo handian egin, jarduera grabatu zein zuzenean emateko puntako baliabide teknologikoak ditu Faktoriak. Emankizunetarako ez ezik, euskarazko sorkuntza sustatzeko erreminta izatea nahi dute: ikus-entzunezkoen grabaketak, sormenerako egonaldiak, entseguak...

Igogailua baztertu –Faktoria guztia irisgarria da– eta eskaileretatik igo gara bigarren solairura. Eskuinean, apal beteez beteriko pasilloa: etxearen edo norberaren garbiketarako gaiak, jakiak, edariak eta beste salmentan. “60 ekoizleren 500 produktu ditugu, hor nonbait, gehienak Aiaraldekoak, tokikoak eta ekologikoak”.

Atzera eginda, erdigunea espazio ireki batek hartzen du –haurrek jada zirris-tatzat bataiatu dute helduek agertoki gaineko miradorera heltzeko maldatzat zeukatena–. Espazioaren inguruan Aiaraldea proiektuko hamasei langileen lanerako bulegoak, eta bilera aretoak bazkide edo mugimendu herritarrentzat.

HAMAIKA PROIEKTU

Espazio anitz eta askotarikoak daude Faktorian eta, horien artean, proiektuak: 11 urteko ibilbide oparoan Aiaraldeak sortu dituenak eta proiektua azaltzen duen aldizkari berezian labur azaldu dituztenak. Kokoriko Hezkuntza Faktoria: hezkuntza eta aisialdi eraldatzailea sustatzen duena mundua aldatuko duten pertsonak hezteko helburu, “udalekuak, tailerrak, jardunaldiak, uni-

tate didaktikoak zein haur, nerabe, gazte zein gurasoei zuzendutako bestelako ekimenen bidez”. Bor-Bor: “[Aiaraldea] eskualdeko mugimendu feminista saretu eta indartzeko ahaleginean aritu da azken urteotan (...) feminismoak tresna berri bat izango du eskualdean, emakumeen* ahalduntzea eta boteretzea indartzeko”.

Komunika: diseinu, erredakzio, ikus-entzunezkoen ekoizpen, itzulpen-gintza eta interpretazio lanak eskaintzen dituena, irabaziekin proiektu osoa, Aiaraldea Ekintzen Faktoria, finantzatzea helburu. Ekonomatua: lehenago ai-

Espazio anitz eta askotarikoak daude Faktorian eta, espazioen artean, proiektuak



OHOLTZA euskarazko kulturarentzako eta sormenarentzako hauspo bilakatu nahi dute.



EKONOMATUA elikadura burujabetzaren aldeko proiektu integrala da.

patutako tokiko produktu ekologikoen salmentatik harago doana. “Eskola jantokietan, catering eskaintzan, etxez-etxez banaketan, nekazari belaunaldi berrien sustapenean... beste hainbat alorretan ere eragin nahi du ildo honek, elikadura burujabetza sustatzen jarraitzeko helburuarekin”. Aiaraldea komunikabidea: aiaraldea.eus eta paperezko hamabostekaria ikur. “Euskara hutsezko hedabide batek izan ahalko lituzkeen mugak aise gainditu ditu, eskualdeko erreferentziako hedabidea bihurtzeraino”.

Begi-belarriak beteta irten gara Faktoriatik sabela beteko digun pintxo-kafearen bila, Garaio eta bere kideak azken ukituetan murgilduta. Ordu erdi eskas barru irekiko ditu ateak Faktoriak. 12:00ak pasatxo dira bueltan gaudenerako, jendea hasia da Faktoriara sartzen, baina ez aurretik eskuorri bat irakurri eta bete gabe. “Irakurri patxadaz, guretzat garrantzitsua da”, dio sarrerako lagunak.

Zer zara? Ahoa? (hitz egiteko gai). Belarria? (ulertzeko gai). Edo Bihotza? (“Ez dut euskaraz ulertzen, baina euskarazalea naiz. Euskararen arnagune hau errespetatuko dut eta eman didazuen hiztegia erabilia, zein ondokoei galdetuta, euskaraz aritzen saiatuko naiz”). Ondoan

oharra, espainolez: “[Ez baduzu euskara ulertzen, ez hitz egiten, ez errespetatzen, sentitzen dugu esatea Faktoria ez dela zure lekua. Gure hizkuntza gutxituta dagoela eta biziberritzeko espazio seguruak behar dituela ulertzea espero dugu. Hau da horietako bat]”. Emaitzarekin “euskararen markagailua” jarriko dute bistan Faktoriaren jarduera guztietan.

“

Euskarak balio behar du gurean erdarek eskaintzen ez duten bizitzeko modu bat marrazteko”

ARNASGUNE, BAZTERREKO DENENTZAT

Euskararentzako espazio seguru eta arnagunea izan nahi du faktoriak, baina ez soilik. Baita –eskuorria irakurtzen jarraitzen dugu–, “emakumeentzat*, haurrentzat, migratzaileentzat, baztertuentzat,



GOIKO PLAZAren inguruan daude Faktoriako langileen bulegoak eta bazkide edo mugimendu herritarrentzako bilera aretoak.

gazteentzat, aniztasun funtzionala duteentzat, sexu-identitate disidenteentzat” ere. Seguritasun horren berme espazioan barneratzen den pertsona bakoitza izatea nahi dute Faktoriako kideek: “Espazio seguru hau errespetatu, zaindu eta aktiboki elikatzeko konpromisoa hartzen dut”, sinatuko du alde aurretik atea gurutzatzen duen orok, Faktoriaren erronka nagusiari erantzuteko: “Bestelako jendarte eredu bat euskaratik eta euskaraz” sustatzea. Feminismoa? Komunitarismoa? Elikadura burujabetza? Ekonomia sozial eraldatzailea? Dekolonialitatea?... Mundua eraldatu?

Baina, ez al zen Aiaraldea euskarazko proiektu komunikatibo bat “soilik”? Bada, izan ziren 2010ean jaiotzean, baina jaiotzatik izan nahi zuten askoz gehiago, nahi horiek esplizitatu eta egituratu zituzten 2015ean abiatutako Aiaraldea 2020 gogoeta estrategikoan eta, gaur egun, izan nahiko luketen horretatik urrun bai, baino dezentez hurbilago daude. Faktoria lekuko, ikur, tresna. Ezin hobeki laburbildu zuten 2020ko irailean Soziolinguistikako Klusterrak antolatutako jardunaldietako hitzaldiaren izenburuan: *Aiaraldea Ekintzen Faktoria: Komunikazio proiektu bat izatetik, komunitate proiektu integral batera jauzi.*



KANTINAk taberna, txoko edo sukalde erabilera izango du, unean uneko jardueraren arabera.

SUMAK KAWSAY, EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Faktoriaren hamaika bazterrak kuxku-heatzeari utzi eta eseri gara denak, ipur-dirik gabeko aulki hutsik ez, oholtzara adi. “Ongi etorri euskaraz aske bizitzeko faktoriara”, bota du aurkezleak, eta gogoak ihes egin digu aurreko egunetan irakurritako Klusterreko testu probokatzaile eta iradokitzaile: “Bizitzeko behar dugun ekosistema osatzea dugu xede”. Eta behar dugu, diote, jan, lagunartea izan, dirua, lo-lekua, hezkuntza, aisia... Horregatik 2015an Faktoria amesteko izan zuten ausarkeria berdinez hitz egiten dute gaur proiektuak finantzatzeko dituen etorkizuneko eskualdeko banketxeaz edo etxebizitza kooperatibez. Abya Yalako herri indigenei hartutako *Sumak Kawsay*-a (Ongi Bizitzea) ipar. Euskarak balio behar baitu “bestelako jendarte eredu bat sortzeko eta bertan zoriontsu bizitzeko. Euskarak balio behar du gurean erdarek eskaintzen ez duten bizitzeko modu bat marrazteko”.

Ruper Ordorikak hartu du oholtza, eta gogo berriz ere jausika musikariaren hitz eta doinu limurtzaileen eta Faktoriako kideen hitzen artean. Eskualdeko grebalaria eta “mitifikatu gabe,

bisitan heldu zaigun gure Ulises txiki” Joseba Sarrionandia hartu ditu gogoan oñatiarrak *Martin Larralde*-rekin abiatu aurretik: borroka tresnatzat dute euskara faktoriatarrek, Ongi Bizitzeko erremintatzat, “funtzio eraldatzaile zentral horrek gure hizkuntza zaugarria indartuko duela sinistuta baigaude”. Euskara jendarte osoan edo erakundeetan transbertsala izan behar duela bai, baina, “gehitu” nahi dute, “euskarak behetik eta ezkerretik izan behar du transbertsala, zentralitatea hartu dezan”. Jarri dute markagailua hormetan: 64 Aho; 4 Belarri; 2 Bihotz. Maite dugun hori zaintzeko beharrari ari zaito kantatzen trobalaria: euskaldunak boteretuz nahi dituzte zaindu euskaldunak Faktorian, euskara eraldatzailea erakarriz, erdaldunak. “Orain arteko gure esperientzia txikiak eta pauso herabeek ere hori erakusten digute; elikadura burujabetza eta agroekologia, feminismoa zein hezkuntza eraldatzailea sustatzeko ahaleginean tresnak mahai-gaineratu ditugun heinean, bazterreko borroka horiek guztiak euskarara erakarri ditugu, euskalduntzen ikusi ditugu, gurera gerturatzen, gu ere eurenera gerturatu garen heinean”. Bide hori urratzen jarraitu nahi dute.

HASIERA BESTERIK EZ

Kontzertua amaituta, bazkaltzeko ordua. Gozatu ditugu lehengai “tokiko edo ekologiko”-ekin prestatutako mokaduak. Kafe garaian hurbildu zaigu Garaio berriz ere. “Zerutik gertu ez da ondo egoten” abestu du amaiera aldera Ruperrek, “hemen egon nahi dut, lurren etzanda, bere taupadak, amodioak eta miseriak entzunez”, eta Garaio ahuleziet eta erronkez hizketan entzutean batek pentsatzen du amestu bai, baina ez direla ameskerietan eta autokonplazentzian erosotzen faktoriatarrek. “Ez dugu Faktoria proiektu klasista bat izatea nahi [bazkide izateko urtean 66 euro edo hilabetean 11 ordaindu behar dira, esaterako], inklusioa da orain erronka nagusietako bat, eta beste bat nola landu hizkuntza migratzaileekin”. Korapilo deskorapilatzen zailak; badute kezka eta ari dira buruari eragiten. Horrekin, eta beste hamaika konturekin: nola erakarri Faktoriara proiektuak dituzten pertsonak eta kolektiboak, militantzia ereduaz hausnartu, Aiaraldea 2025 gogoeta estrategikoari ekin... Arriskurik badute bidean, baina goroldiorik itsastea ez dago horien artean. “Jendea etortzen zaigu azkenaldian, ‘lortu duzue!’ Lortu? Orain hasiko gara eta!”. ●

ERRONKARRIERA ETA ZUBERERA

Lurraldearen mugetako hizkelgi beti bazterrekoak

Auñamendietako euskalkien ganean mintzatu ziren martxoan Gasteizen *Hitz adina mintzo* zikloaren barruan. Behialako erronkarietaz solastatu zen Alberto Angos, eta zubereraren ganean, berriz, Argitxu Camus.

 MIEL A. ELUSTONDO

Bietan lehenik, erronkarietaz hitz egin zuen Alberto Angos (Barakaldo, 1973) ostalariak, hau da, ekialdeko nafarreraz edo Auñamendiko uskaraz, sasoi batean Nafarroako ipar-ekialdean –Aragoi, Biarno eta Zuberoa muga zituela–, behiala hitz egindako euskaraz. Angosek oroitarazi zuenez, Fidela Bernat Aracues uztarrotarra izan genuen erronkarietaren azken mintzaidea, eta galera ez aspaldiko horren berri eman zuen Angosek, esanez euskara XIX. mendearen bukaeran Erronkaribar osoan erabiltzen bazen ere, XX.aren hasieran agerikoak zirela hizkuntzaren atzentze eta galera. Iruñeko gotzaitegiaren 1904ko iturriak horren erakusgarri eta froga direla esan zuen, eta datuak eskaini.

EUSKALKI GALDUA

Galeraren arrazoiez mintzaturik Angos, hainbat zio nahiz hipotesi azpimarratu zituen. Inondik ere, kokapen geografikoa izan zen galeraren arrazoietarik bat, ez bakarra, haatik. Angos Bernardo Estornes Lasaren usteari lotu zitzaion, zeinak Bigarren Karlistadari egotzi baitzion, partez, bederen, hizkelgiaren galtzea: “Estornes Lasaren arabera, erronkaria-

rren artean liberalak ziren gehientsu, eta karlistak agertu zirenean, bertako askok emigratu behar izan zuten, dela Frantziara edo Amerikara. Karlistadak bukatu berriz, 1876an foruak indargabetu eta mugen babesa areagotu zuten karabinari eta jendarmeez. Hauek, bistan dena, ibarretik lekorekoak ziren eta horrek, nahitaez, euskararen eta gaztelararen arteko gatazka sortu zuen, Angosek adierazi zuenez: “Hala ere, Izabako Antonia Anaut Gardek eta Uztarrotzeko Leon Cebrianek ziotenez, euskararen galera herriko familia aberatsek eragin zuten, gutxiesten baitzuten. Ubaldo Hualde izabarraren ustez, aldiz, Espainiako Estatuaren zentralismoa izan zen Erronkariko euskararen galeraren eragile nagusia, gaztelararen erabilera inposatu baitzuen eskoletan, eta irakasleek neska-mutilak zigortzen baitzituzten, ikasgelan zein handik kanpo, euskaraz mintzatzen baziren”. Azkenaz beste, erronkariarren ogibideek ere hein bateko eragina izan zuten euskararen erabileran, edota galeran: artzainen transhumantzia –lanak bertakoak erdal herrietara eramaten baitzituen–, zurgintza –ibarretik lekoreko langileak erakarri zituzten–, eta Mauleko espar-

tingintza –ibarreko emakumeak haraxe eraman zituen heinean–, aipatu zituen Angosek.

SAILKAPENA

Horiek esanda, euskalkiaren nolakoa agertzeari lotu zitzaion Angos, esanez Bonaparte printzeak hasmentan erronkarietaz zubereraren azpieuskalki gisa sailkatu zuela, “baina 1872an, *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d’Aezcoa, de Salazar et de Roncal* (Aezkoako, Zaraitzuko eta Erronkariko hiru euskalkiei buruzko ikerlana) liburuan, euskararen bederatzigarren euskalkiaz ari zen, eta Arturo Campioni 1880ko urriaren 12an igorri zion eskutitzean erronkarietaz euskalki independentea zela jakinarazi zion”. Bonapartek, erronkarietaz bat, hiru azpieuskalki –Bidankoze, Urzainki eta Uztarrotzekoak– eta zazpi aldaera bereizi zituen, Bidankozeko azpieuskalkia nagusitzat hartuz. Alabaina, puntu horretan entzuleak oharrarazi nahi izan zituen Angosek, Bonapartek Erronkarin izan zituen bi laguntzaileak Bidankozekoak izan zirela azpimarratuz: “Pedro Prudencio Hualde Mayo apezka eta Mariano Saturnino Mendigatxa Orenat laboraria”.

Barcelona 19 Diciembre 1884
 ere hian Juana maitea
 Eugenio sinder arte ongu
 queman gauder anise ongu
 guriaz eta ori nola dago?
 naidin sin eona ichasaren
 eustra? anise andi da. tian
 Juana, naidin nie dud anise
 duvi orren tate vidagearen panga
 tate eta quemando estatoren

ERRONKARIERA. Goian, Julian Gaiarre opera abeslariak 1884ko abenduan Bartzelonatik izebari bidalitako gutuna. Euskalkiaren lekukotasun garrantzitsua da eskuizkribu hori. Eskuinean Luis Luziano Bonapartek bildutako kredo.

Printzea ez zen izan erronkarieraren aztertzeren jo zuen bakarra, eta Angosek euskalkia aztertu duten beste hainbat adituren berri zuzen bezain zehatzak eman zituen: Azkue; Rudolf Trebischt; Juan Jose Beloki, Jesus Elozegi, Pilar Saineneza Elozegi eta Luis Mitxelena; Kandido Izagirre; Martzelino Garde; Juan San Martin; Estornes Lasa anaiak; Koldo Artola... Denak aipaturik ere, on da geldialdia egitea Artolarenean, azken erronkarieta hondarrak ezagutu eta grabatu baitzituen.

Angose jakinarazi zuenez, Koldo Artolak "Izabako Antonia Anaut eta Uztarrozeko Doroteo de Miguel eta Josefa Karrika ezagutu zituen. Kontatu nahi zioten guztia grabatu zien magnetofoian: kantak, pasadizoak zein ume-jolasak... Antonia Anaut ebakiera garbiko emakumea zen, Doroteo de Miguelek, aldiz, desitxuratua zuen euskara, hainbat urtetan euskaraz inorekin hitz egin gabe egona baitzen. Josefa Karrikari dagokionez, adinekoa izanik, eta hitz gutxikoa, Artolak nekez zehaztu ahal izan zuen zenbateraino zekien hark uskaraz". Eta, honenbestez, erronkarieraren azken hiztun Fidela Bernat Arascuesen albiste eman zuen Alberto Angosek: "Koldo Artolak 1975ean ezagutu zuen, Iruñean. Hamar urte lehenago Nafarroako hiriburura joana zen bizitzera bere familiarekin. Fidela balio handiko berriemailea izan zuen Artolak, euskarari eta ibarreko bizitzari buruzko informazio ugari eta interesgarria eskaini baitzion. Artolak 1975ean eta 1978an grabatu zuen Fi-

dela, eta haren euskara, bere lehengusu Doroteorena bezala, desitxuraturik zegoen ordurako". Erronkarieraren fina izan zen, beraz.

Mintzaldiari puntu ezarriz, Alberto Angosek erronkarierarenak diren zenbait testu erabili zituen, antologia gisakoa eskainiz entzuleei. Horietan, sorginkeriazko epaiketa baten harira Florencio Idoatek 1569an Burgin idatziak diren erronkarierazko testurik zaharrenak irakurri zituen: "Burgui, 8 de septiembre de 1569. Aurrac, arnega eçaçuey jangueicoaz eta andre dona Mariaz eta sayntu eta saynta guçuey eta andre dona Mariac eta santa Annac eztyuey aurric. Catalina Bront, 7 urte".

OI ZUBERERA!

Angos erronkarieraz solastatu ondotik, zubereraz jardun zuen Argitxu Camus Etxekopar (Onizepea, 1980) irakasle eta Euskararen Erakunde Publikoko misio-kargudun eta ikertzaile ezagutuak, hiru ataletan banaturik mintzaldia. Eskualdearen aurkezpena egin zuen lehenik, euskararen egoeraz eta erronkez segitu zuen, eta euskalkiaren gainean hitz zenbait eginaz burutu zuen saioa.

Euskal Herriko eskualdeetan ttipiena da Zuberoa, bizizalez nahiz lurraldez. Ekialdean kokaturik, "auzoak ditu nafarrik, baxenafarrik eta biarnesak... Inportantzia handiko datua da hori, auzo herrietatik jinak anitz baitira Zuberoan".

Kredoa. 5. ^{Garde.} ~~Angosek~~ ¹⁸⁸⁴ ~~1884~~ ¹⁸⁸⁴
 1. ^{clan} Sinesten dud Jangoiketan Aita,
 2. gaiza gurizuet poder dignaren, zeuz
 3. riaren, lurraren kriazale, eta se
 4. sukristo aren seme bere sein ba
 5. kocha, zoin izan baizen konzelibrik
 6. Espiritu Sainthu Jainaren obraz,
 7. sortu Ama Bergina ganik, pade,
 8. zetu Ponzio Pilatusen potroren
 9. pean, kruzifikatu, il eta enzi,
 10. sanuchi zela Simbuetra, kantik
 11. irurgaruen egunian resuzitatu
 12. zela ilen artetik, igan zela zeuriz
 13. tra, kan dagola inseririk bere
 14. Aita Poderosoaren alteskojeki allian,
 15. kantik sizen dela Juizioko egu
 16. nian ilen eta bizien jurgetra.
 17. Kala sinechetan diez Espiritu
 18. Sainthiak, Eliza Ama Sainthia ha
 19. tolikaren, Sainthien Komun., behate
 20. oaren parkamentuan, aragiaren

Ondorioz, bateko eta besteko hizkerak nahasian dira bertan, Camusek esan zuenez.

Historiari, biztanleriari eta administrazio banaketari buruzko jakingarriak azaldu, udalerrien eta kantonamenduen berri eman, eta egoera sozio-ekonomikoaz zenbait xehetasun agertu zituen Camusek. Pare bat perla ditugu adibide: "Laborantza eta abeltzaintza dira bertako jarduera nagusiak, baina enplegatzaile handienak, hango bi ospitaleak ditugu, hau da, adineko jendeendako ospitaleak. Horrek anitz dio Zuberoaren dinamikaz eta jendetza galtze larriaz. Hori ez da gauza berria, hala ere, Bigarren Mundu Gerlaz gero populazioa beheititzen ari baita, eta ez da gelditzen". Bigarren jakingarria, kulturari datzekona: "Kulturalki, oso dinamikoa da Zuberoa: bada pastorala, bada maskarada, bada kantaldi eta ikusgarri franko...". Eta, dakikegunez, aurtun ere espero da udan pastorala izatea, Ezpeizen.

DIGLOSIATIK DIGLOSIARA

Ohar hori egin eta, jarraian, euskararen egoerari lotu zitzaion Camus. Ageri denez, zubereraz mintzo dira zuberotarrak, baina ez denak: "Bost udalerritan ez baitira zuberotarrez mintzatzen,

nafar-lapurteraz baizik". Eta euskararen egoeraz mintzo jada, Inkesta Soziolinguistikoaren datuetatik abiatu zen: "EAE, Nafarroa eta Iparraldeko kopuruak baditugu, baina Zuberoarendako zenbaki propiorik ez, Nafarroa Beherea eta Zuberoa elkarrekin hartzen baitira inkestan. Haatik, badakigu azken inkestan arabera Iparraldean %20 euskaldunak garela, eta adin handieneko tartean, berriz, %50ekoa ere bada euskaldunen portzentajea". Alabaina, bistan da kopuru hori ondoko inkestetan apalduko dela, adin handienekoak hilez geroztik. "Bada lana egiteko: familia transmisioa gelditu da, eta, egoera horretan, eskolek eta euskaltegiek geroari begira egin dezaketen lana guziz estrategikoa da, giltza, benetan", sententziatu zuen, pisua irakaskuntzan ezarriz, beraz.

Oraingo egunean, bi ikastola eta eskola elebiduna ere badira Zuberoan, baina "ikastola, eskola elebidun nahiz gau-eskoletan, zuberera erakusten diete ikasleei eta, hein horretan, zubereraren erronkak euskararenak dira". Hor, ageri denez, frantsesak gasna zatirik handiena jan dio gure hizkuntzari. "Diglosia egoeran da euskara Iparralde guzian, argiki frantsesak gaina hartu baitio euskarari. Euskara, eskolaren bidez garatzen ari da, baina behar da gehiago garatu, galdu duena berriz atzemateko". Besterik ere bada, Camusen gogoetan: "Zuberera euskalki bat izanki, batuak arautu duen euskara horretatik urrunena da, eta horrek diglosia gehigarri bat ekarri dio. Hor bada erronka handi bat", ez bakarria, hala ere, besterik ere zehaztu baitzuen Camusek.

Egoeraren beltza ezin argiturik, euskara ondorengoratzeaz aritu zen, nekeziak seinalatuz: "Familiatan guti transmititzen da euskara, haurrek ez dute karrikan entzuten eta, so eginez, ohartzen gara arazoak badirela zubereraz irakasten ahal luketen irakasleen atzemateko"... Erronka gehiago ere bazuen Camusek, ordea, nola baita euskaraz ikasiko duen ikaslearen hizkuntza maila, ezen, haurrak ez baldin badu etxean euskararik aditzen, ez eskolatik kanpoko karrikan ere. "Zein



ZUBERERA. Haurtzaro (Oiarzun) eta Eperra (Sohüta) ikastolako haurrak elkarrekin. Eperrako ikasleek zubereraz ikasten dute.

HAURTZARO IKASTOLA

maila izanen du haur horrek?". Are, Ipar Euskal Herrian, haur anitzek, lehen hezkuntza eredu elebidunean eginagatik ere, bigarrena egitera jotzen dute guztizko frantsesera. "Etxean ez baldin badute praktikatzen, ez karrikan ere, xantza bada euskararen maila galduko dutela. Badakit hemen ere badituzuela eztabaida horiek, bai, badakit". Ezagutzaren eta erabilaren arteko leizea ez ezik, erabilera horri darion kalitateaz ari zen Camus.

ZUBERERA GABE, NAFAR-LAPURTERA

Euskalkiaren geroza mintzatu zen gero, beltzunerik franko seinalatuz: "Ikastolatik pasatzen diren ikasleek zubereraz ikasten dute, baina Zuberoan ez baita lehen hezkuntza besterik, kolegiarik ez, Nafarroa Behereko Lartzabalen segitzen dituzte beren ikasketak, ontsalaz, baina ez gehiago zubereraz, Iparraldeko batua den nafar-lapurteraz baizik". Camusen irudiko, horrek ere diglosia egoera ezartzen du batua den eta zubereraren artean, eta, horrekin batera, zubereraren bilakaera bera ere areagotuko du. Izan ere, ikastolan zuka baizik ez da irakas-

ten -tokaren eta nokaren galera, beraz-, eta haurrek aski zuberera ez dute aditzen -hortik ahoskera hutsak segitzen baitira, hatxearen ahoskatzea, esaterako, Camusen arabera-, eta ondorioz, "euskalkiaren pobretzea gertatzen ahal da, desagertzearen bidean. Hori, hala ere, geroak erranen du, baina aski ezkor naiz. Eztabaida anitz ukan ditut Euskararen Erakunde Publikoan, euskaldun berriei begira batua dela bidea erraten didate, baina, barka!, horrela mintzo direnak manexak dira -eta 'manex' ez da peioratibo batere-, ez dira zuberotarrak!". Eta, Camusen oharkizuna: "Batua egin zelarrik, euskalki bat hartu zen oinarri, eta ez zen zuberera izan. Euskara guziak ez dira, beraz, ber egoeran, ez ber mailan. Euskalkientzako borrokatzea ez dela legitimoa erraten didate, indarren galtzea dela, euskalki ezberdinek nahasmendua ekartzen dutela euskaldun berrientzat. Ene irudiko, ordea, euskalkiak, euskara batutik hurbilenak zein urrunenak direnak, euskara dira, euskararen DNaren parte, eta horiek galtzea, euskara pobretzea, ahultzea litzateke, euskarak galduko duen beste borroka bat izanen da". ●

BABESLETZA:



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Retour des cendres, Napoleonon hileta luzea

Longwood, Santa Helena uhartea, 1821eko apirilaren 16an. Erbestealdian zela eta hil baino bizpahiru aste lehenago, Napoleon Bonapartek azken nahia erantsi zion bere testamentuari: Parisen ehortzi zezaten nahi zuen, “Sena ibaiaren ertzean, hainbeste maitatu dudan frantziar herriaren erdian”. Baina Santa Helenan bertan ehortzi zuten. Ia 20 urte igaroko ziren haren gorpuzkiak Frantziara itzuli baino lehen eta, beste hainbeste, gaur egun dagoen hilobian sartu arte. *Retour des cendres* esango zioten prozesu luzeari, errautsen itzulera.

Hil eta berehala hasi zen indartzen frantziar herritarren artean Napoleoneen mitoa, baita haren gorpuzkiak Frantziara eramateko eskaerak eta ahaleginak ere. Azkenean, 1840ko maiatzean, Frantziako diputatuen ganbarak arrastoak ekartzearen alde bozkatu zuen, nahiz eta hamar urte lehenago luzatutako proposamenari diputatu gehienek ezezkoa eman. Luis Filipe I.a erregea bat zetorren gobernuaren erabakiarekin; Uztaileko Monarkiaren egoera ahula zen atzerrian nahiz etxe barruan, eta Napoleoneen itzulerak bere posizioa indartu eta errebolta giroa itzaliko zuelakoan zegoen.

Espedizioa uztailean abiatu zen Santa Helenara, Joinvilleko printzea, erregearen seme gazteena, buru zuela. Aitak etekin politikoa lortu nahi zuen, baina semeak turismoa egiteko baliatu zuen bidaia. Besteak beste, Cadizen, Madeiran eta Tenerifen geldialdiak egin zituzten, xahutzen ari ziren dirutza gogoan hartu



JACQUES GUIAUD

Duela 200 urte hil zen arren, Napoleon Bonaparteren hileta ofiziala 1840ko abenduaren 15ean izan zen, hau da, ia 20 urte geroago.

gabe. 93 egun behar izan zituzten uhartera iristeko.

Napoleoneen gorpuzkiak urriaren 14an atera zituzten bere lehen hilobitik eta lau egun geroago abiatu ziren ontziak. Itzulerako bidaia askoz laburragoa –eta merkeagoa– izan zen, 13 eguneko, Ingalaterrarekin gatazka pizteko arriskuak akuilatuta. Frantzia barruan egoera ez zen lasaiagoa, eta iraultza giroa hedatzen ari zenez, gobernuak erabaki zuen Napoleoneen hiletaren prestatze lanak bizkortzea eta data abenduaren 15ean jartzea. Liskarrak saihesteko, zeremonia militarra egin zuten, eta ez zibila. Hau da, herritarrek ezin izan zuten Napoleoneen segizio ikusgarrian parte hartu. Eta, hala, Luis Filipek ez zuen bere asmoa lortu; alderantziz, erabaki horrek

monarkiaren irudia okertzea besterik ez zuen eragin.

Napoleon Les Invalides-en ehortzi zuten, bigarren, 1840ko abenduaren 15 hartan, baina haren hilobia, Louis Viscontiren obra, bukatu gabe zegoen eta Saint-Jérôme kaperan sartu zuten. Monumentua amaitzeko epea beste bi hamarkadaz luzatu zen, eta aurrekontua ikaragarri gizendu; soilik sarkofagoa egiteko harriengatik 200.000 libera ordaindu zituen estatuak. 1861eko apirilaren 2an, zeremonia pribatu batean, ehortzi zuten Napoleon Bonaparte hirugarrenez eta azkenekoz.

Azkenean, *retour des cendres* delakoak ez zion inori etekin politikorik ekarri eta zulo sakonak hondeatu zituen altxortegian. ●



GÉRARD BILOT

Napoleon ez zen sekula Waterloon egon

1815eko ekainean, Napoleonek azken eta behin betiko porrot militarra izan zuen Waterlooko guduan. Baina Napoleonek ez zituen sekula udalerririk hartuko lurrak zapaldu. Gudu-zelaian egon zen, jakina, baina gudua ez zen Waterlooko lurretan gertatu, handik kilometro gutxira baizik. Braine-l'Alleud eta

Plancenoit udalerrien artean dagoen Mont-Saint-Jean herrixkan izan zen gudua. Horregatik, hasieran, frantziarrek Mont-Saint-Jean-eko gudua esan zioten Napoleoneen porrotari. Baina, irabazleak, Wellingtono dukeak, Waterloon egin zuen gudu txostena eta, azkenean, ospea udalerririk horrentzat izan zen. ●

“Ongi bizitzeko espazioa da Hiru Damatxo”

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Guretzat balio handiena duena da badakigula bakoitzaren premiak eta egoerak kontuan hartzen eta horietara moldatzen”. Hiru lagun artean jarri zuten martxan Hiru Damatxo, eta laguntasun horretatik, naturala egin zitzaizen konfiantzan oinarritutako funtzionamendua, laneoak ez diren beste premiak kontuan hartzen dituen... geroztik hiru baino gehiago dira damatxoak eta pozik daude jakin dutelako lagun arteko funtzionamendu hori eramateko proiektura geroago batu diren pertsonengana, “beraiei ere espazio hau ematen eta beraien beharrak ere erdian jartzen”, eta hasieran bezala konfiantzatik eginaz, sistematizatu gabe.

Ikasturte honetan kimu-berritu da taldea: irailean bi lankide berri sartu dira eta kide beterano batek utzi du, tesia egiteko. “Nahiz eta pandemia testuingurua ez zen batere aproposa horretarako, boskotea taldean oso ongi trinkotu da. Lehengo talde dinamika mantentzeaz gain, dinamika berri bat hasi dugu”. Lehen hilabete horietan lehentasuna eman zioten kide berriak taldean sartzeko prozesua zaintzeari, ahalik gehien presente egonaz: “Uda amaierak horretarako aukera eman zigun eta baliatu genuen, eta behin martxa hartuta, jada denbora gutxiago ematen dugu elkarrekin baina sendo jarraitzen dugu”.

GAUZA GEHIAGOTARA EGOTEA, JOATEA ETA ITZULTZEA

“Ikuspegi jakin batetik eta euskaratik sortutako ikus-entzunezko lanak egiten ditugu, baina hori bezain garrantzitsua da guretzat bidea, bizigarria den proiektu bat izatea, eta bizigarria izateak eskatzen du proiektuei ez erabateko lehentasuna ematea”. Hiru Damatxo “taldea osatzen dugunok ongi bizitzeko espazioa da”. Azaldu dutenez, askotan lehenetsi dute taldeko kideen ongizatea anbizio handiko proiektuei heltzea baino: bat urtebete-



rako joan zen kanpora eta erraztasunak jarri zizkioten horretarako; beste kide batek bere ibilbide pertsonalean gehiago inplikatu nahi izan zuenean egokitu egin ziren Hiru Damatxo utzi beharrik izan ez zezan; denek berdin kobratzen dute baina gorabehera ekonomikoak egon direnean modua bilatu dute batzuek lehenago kobratu zezaten...

KONFIANTZA DA GAKOA

“Ez dugu sistematizatuta. Talde txikia gara, bilerak konfiantzan egiten ditugu eta hor mahai-gaineratzen ditugu bakoitzak gure premiak. Joera edo ohi-tura hori hasieratik daukagu baina ez dago araututa”. Kasu bakoitzari egokien zitzaien formularekin erantzun diote: proiektuan inplikazio maila desberdinak ezarri, ordutegiak eta lan egiteko lekuak egokituta... “Guretzat garrantzitsua da astean behin edo birritan elkartzea, eta aurrez aurre egitea taldearen jarraipena eta proiektuen sormena; baina hortik aurrera oso malguak gara bakoitzak behar eta nahi duen tokitik lan egin ahal izan dezan”.

NOLAKO LANAK EGIN ETA NOLA

Urte eta erdiko gogoetan sakondu dute zein bideren aldeko apustu egin nahi duten: sareko ikusentzunezkoak. “Eguneroko kontsumoan sareko ikusentzu-

nezkoetan gabezia handia dago eta hor partida garrantzitsua jokatzeko bai euskalgintza-aren ikuspegitik, baita tokikotasunaren eta bertako erreferentzien ikuspegitik ere. Hor jarri dugu fokua, ez justu negozio aukera aurkitu dugulako, gaur egun ez baita proiektu bat lasai garatzeko eremua, baina uste dugu etorkizunerako oso eremu garrantzitsua izango dela”.

Sareko ikus-entzunezko ekoizpenak egin nahi dituzte, baina eragile guztiak zainduta: “Normalean, ikus-entzunezko ekoizpenetan oso zaintza gutxi dago. Berandu ordaintzen da, gauzak ez dira garbi esaten, oso azkar egiten dira gauzak aurrekontu mugatuarekin, sektore hotza da azaleko harremanetan oinarritua... gu saiatzen gara horri buelta bat ematen eta beste era bateko harremanak izaten kontratatutako kolaboratzaileekin, aktoreekin...” ●

hiru
dama
txo.

HIRU DAMATXO
hirudamatxo.eus

Zer egiten du: Komunikazio zerbitzuak eta burutazio propioak. Klase guztietako ikus-entzunezkoak, diseinu lanak, komunikazio-estrategiak...

Langile edo bazkideak: 5.

Noiz sortua: 2016an.

Egoitza: Donostian.

Harremanetarako:

943 47 48 01

info@hirudamatxo.eus

ZIBURUKO 2. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskarak plaza berreskuratu eta plazak bizia

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gainean da Ziburuko 2. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Ekainak 12, gorde data. Memorian ezkutatu duzu dagoeneko lehena? Freska dezagun burua. 2019ko ekainaren lehen larunbata, eguraldi eder baina benetan beroa, eta han ziren, karpazuri baten azpian, Ziburuko plazan, Euskal Herri osoko 17 argitaletxe, hizkuntzari eta kulturari leku egiten, mugaz alde horretan estreinakoz euskara hutsezko ekoizpenei osoki dedikatutako azokan, ARGIAK eta indar gehien jarritz Baltsan elkarteak antolatuta.

22 dira aurten bertan izango direla baieztatu duten argitaletxeak. Gu-nea bera, herriko plaza. Azoka urtero ekaineko lehen larunbatez egitea da asmoa, nahiz eta aurten bigarrenean egingo den; ekainaren 9an altxako baita horrelako ekitaldiak antolatze-ko debekua. Aurtengo partaidetza berri bezala azpimarratu dituzte Euskal Irratiak, Euskal Kultur Erakunde-a eta Ziburuko Herriko Etxea, beren aholkularitza eta laguntza teknikoak, ekonomikoak edota mediatikoak ekarri-antolatzaileei. Horrelako partaidetzak ezinbestekotzat jotzen dituzte, Azoka pixkanaka handituz eta ekitaldi nagusi bilakatuz joan dadin.

AZOKA EKITALDIZ JANTZIA

Egun osoz egongo diren postuez gain, azaldu digute Baltsan elkartetik "goi-zean Ziburuko gela elebidun eta ikas-tola haurrek parte hartuko dute ba-koitzak kantu baten bitartez Maddi Zubeldiak emanen duen *Iturri zahar-reko ipuina* ikusgarrian, hain zuzen ere historikoa den plaza gibe-ko Iturri lekuan; eguerdi aldera Asisko eta Dani Fano marrazkiz, Maddi Ane Txoperena eta Odei Barroso bertsoz, arituko dira elkarrekin *Zirriborroka* izeneko inprobisazio saio berezian; eta egunari bukaera emateko, Agus-



tin Alkhat eta Julien Labatek *Hutsaren hatsa* diskoa aurkeztuko dute". Horrez gain, talo postua izango da irekia Ikastolaren alde eta ostatuak ere bai, terrazan edo barnean egon ahal izanik.

Hego Lapurdi euskal hiztun andana biltzen dituen eskualdea da, baita Lapurdi barnealdea, Bortziriak eta Bidasoaldea ere. Irundik Baionaraino, ordea, ez da euskarazko argitalpenei dedikaturiko liburu dendarik. Ziburuko Azokak bere xumean erantzun bat eman nahi dio horri, oasi bat eskainiz erdararen basamortuan. Hala azaldu dute: "Euskal giroak egun oso batez Ziburuko plaza hartzea da helburua, euskal liburu eta diskogintzaren aniztasun eta aberastasuna erakustea, eta espero dugu, muga gainditze-ko ahale-ginean, ARGIAK eta Baltsanek irekitako bidean elkartuko direla Lapurdi barnealdeko, kostaldeko, Bidasoaldeko eta Bortzirietako euskaldunak, baita urrunagokoak ere". ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Egunean zehar telegram kanalaren bidez heltzen zaizkidan berrien trataerak irakurtzera bultzatzen nautelako. Labur esanda lan bikaina egiten duzuelako"

Bermeoko Biotza

"Kazetaritza ona, herriaren aldekoa eta buruari buelta batzuk emateko aproposa delako"

Azkoitiko Jone

"Urteak daramatzat Argiako webgunea egunero irakurtzen. Bereziki garrantzitsua eta lagungarria izan zen niretzat atzerrian bizi izan nintzenean, Euskal Herriarekin eta euskararekin konektatuta jarraitzeko. Azkenik badut lasaitasunez ekarpen ekonomikoak egiteko aukera, beraz, hementxe duzue"

Donostiako Oihane

ILARRA ETA MAGITXA, ZEIN BAINO ZEIN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ilarraldi betean gara. Etxean ikasia dugu ilarra dela udaberrian berdetan edo freskotan jaten den ale biribila (*Pisum sativum*). Baina izen asko du, etxe-ilar, poidezantur, irar, itxilar, ilar biribil, ilar xehe, ilar berde, ilar orlegi, ilar gozo, ilar bera, ilar txiki, ilar xuri, ilar-xixa eta besteren bat ere bai, segurki.

Denborarekin eta etxetik atera eta batean eta bestean galdetu edo gabe entzundakoekin eta irakurritakoekin ikasi dut leka barruan hazten den ale ugariri esaten zaiola ilarra; beno, nire ustea besterik ez da. Hizkuntzalariek hitz egin dezatela...

Era askotara entzun izan dut "ilar" hitza beste hainbat lekazi edo lekale izendatzeko. Hona dakizkidanak aletuta, leka bezala aletuta edo irakurrita. Babarrunari (*Phaseolus vulgaris*) ilar, indilar, mailar, marikol, ilar beltza, nafar-ilar, ilar habetako, ilar zuri, ilar gorri, ilar luxe, ilar nabar, ilar motz eta baba erroma. Dilistari (*Lens culinaris*) ilar zabal, ilar xabal, ilar xehe. Txixirioari edo lelikotari (*Cicer arietinum*) ilar-xixa, nafar-ilar, marikol eta mairu-ilar. Lekari (*Phaseolus vulgaris*) ilar-leka, ilar fresko, ilar berde. Aizkolari (*Lathyrus sativus*) ilar latz. *Lathyrus odoratus*-i ilar usainduna. Txirintxoari (*Medicago sp.*) idar beltz. *Vicia*



ILARRAREN ALEAZ GAIN, BERA
DAKARRREN LEKA ERE JAKI APARTA DA.

lutea-ri garilar eta idar beltz. Astailarra (*Lathyrus aphaca*). Sulari (*Hedysarum coronarium*) suge-ilar.

Bada bai ilarretik gure inguruan. Ilarraren alea bazka oso ona da guretzat bezala gure aberentzat. Bazka ona animalientzat eta lurra aberasten duena. Lekadun guztiek lurra nitrogenoz osatzen dute, lurpean, sustraietan apopilo hartzen dituzten bakterio berezi batzuen lankidetzaren delako medio.

Aleaz gain, bera dakarren leka ere jaki

aparta da. Leka edo teka edo ilar-teka edo zeruka edo magia edo magina edo ziskua. Irakurri edo aletu behar den horrek ere izango du izen gehiago... Babarenari (*Vicia faba*) teka, leka edo zerukaz gain baba-zekale ere esaten zaio.

Aparteko gozotasuna aitortzen zaie bereziki leka jateko ereiten diren ilar bariatateei. Ilarraren azpi-espezie gisa sailkatzen dira: *Pisum sativum subsp. arvense*. Fruitua heldutasunera iritsi aurretik, barruan aleak arrasto ttiki-ttikiak besterik ez direlarik, oso-osorik jaten den gutizia da. Iparraldean teka eta Uztarroren magutxa edota magitxa esaten zaie fruitu berezi horiei. Kolonizatuok "tirabeque" edo "bisalto" edo "mangetout" edo "pois gourmand" esaten diogu.

Esarak ederki dio noiz erein behar den ilar jende hori: etxilarra erein San Moritzerako, ez zaizu murriztuko. Zein erlijiotakoa zaren, arabera horretara erein beharko duzu; San Moritz irailaren 22a da katolikoentzat, abenduaren 27a ortodoxoentzat, eta hileroko 25a ortodoxo koptoentzat. Ni, oraingoan, ortodoxoa naiz. Eta abenduko ilgoran biak ereingo nituzke, ilarra eta magitxa. Baina kontuz, gezurrari ere "ilarra" esaten zaio. Eta "magitxa" lizunkerietako bazkari ere bai... ●



BIOTERRA
2021

Produktu ekologikoak, bioeraikuntza,
energia berriztagarriak eta
kontsumo arduratsua

ekaina FICOBA

4 · 5 · 6

Euskadiko
EKO azoka



Izena eman eta lortu
zure doako sarrera



BEHIEKO

ESNE EKOIZLE EKOLOGIKOAK ELKARLANEAN

Anoetako Gregorio Zuaznabarrek eta Altzoko Fermin Muruak osatzen dute Behieko proiektua. Baserri munduan ari ziren lanean lehenagotik bi abeltzainak eta Gipuzkoan behi-esnea eredu ekologikoan ekoizten lehenetarikoak izan ziren, bakoitza bere aldetik. 2009an, baina, elkartzea eta indarrak batzea erabaki zuten. “Esnekiak elaboratzeko premia ikusten genuen, eta norberak bere aldetik egin beharrean elkartuta errazagoa izanen zela pentsatu genuen”, dio Muruak. Sabekoetxea eraldaketa-gunea martxan jarri eta 2010etik esne pasteurizatua eta jogurta egiten dituzte, eredu txiki eta ekologikoan.

GANADUAREN MANEIOA GAKO

Hogei bat behi eta 22 hektarea belardi ditu Muruak, eta Zuaznabarrek, berriz, zortzi bat behi eta beste hainbeste hektarea. “Ekoizpen ekologikoan aritzeko larre hektarea bakoitzeko gehienez bi behi eduki daitezke”, azaldu du Altzoko abeltzainak. Ekoizpen konbentzionaletik desberdintzen dituen beste faktore bat belardietan pestizida eta herbizidarik ez erabiltzea eta aziendei ematen dizkieten antibiotiko eta medikamentu kopurua dira: “Askoz antibiotiko gutxiago erabiltzen ditugu eredu ekologikoan, horien erabilera maneiarekin oso lotuta dagoelako: ekoizpen txikietan askoz gutxiago behartzen ditugu behiak, eta



horrek errazago egiten du sistema osoa”. Alegia, behiak zenbat eta esplotatuago egon, orduan eta osasun arazo gehiago dituzte.

Larretze sistemari dagokionez, otsailetik abendura bitartean kanpoan izaten dituzte aziendak Behiekoko kideek, eta neguan, eguraldi txarrarekin, hilabete pare batez soilik sartzen dituzte ukuilura. Animalien elikaduran eragin zuzena du horrek: belar freskoa da haien elika-

duraren oinarria, eta pentsua sostengu modura soilik erabiltzen dute. Behi arrazetan, tokiko klima eta orografiara hobekien egokitzen direnak dituzte, inguruko gaixotasun eta parasitoei ere erresistenteagoak direnak: “Parda alpinar arrazako behiak eta mestizajeak ditugu batik bat, landa-arrazak; frisiarrak geroz eta gutxiago ditugu”.

ERALDAKETA ETA SALMENTA HAIEN GAIN

Altzoko baserrian, ukuiluan bertan erai-ki zuten eraldaketa-gunea, eta bertan esnea pasteurizatzen eta jogurtak egiteko hiru langile dituzte. Zuaznabarrek astean hirutan eramaten du esnea. “Guk ekoizten dugun esne ia guztia hemen eraldatzen dugu, ez dugu kanpora ia ezer saltzen. Olaberrin Behieko gazta egiten duen beste kideak eramaten du batzuetan, hori bai”, dio. Larretik ontziraino, haien eskutan dago prozesu osoaren kontrola.

Zuzeneko salmenta da Behieko proiektuko kideek lehenesten dutena: dendetan, jatetxeetan, kafetegietan, kontsumo taldeetan... etxez etxeko salmenta ere egiten dute oraindik, eta esnea saltzeko modu zahar hori berriagoekin uztartzen dute; hain zuzen, Tolosan dispentsadorea dute martxan duela zenbait urtetik, eta esnea, yogurtak eta gaztak saltzen dituzte bertan. ●



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



25 urte elikagai ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

CPAEN NNPEK
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCCIÓN, ABASTECIMIENTO Y CALIDAD DE PRODUCTOS AGROPECUARIOS, PECI. ACCIÓN AGROPECUARIA Y RURAL

EUROPEAN UNION
EUROPEAN AGRICULTURAL GUARANTEE FUND

25 ANOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCCIÓN, ABASTECIMIENTO Y CALIDAD DE PRODUCTOS AGROPECUARIOS, PECI. ACCIÓN AGROPECUARIA Y RURAL

Ospatu gurekin urteurrena!

Irailak 24-25-26
Zentzumenen parkea, Noain

“ ”

Musika etengabeko ikasketa da, beti ari naiz gauza berriak entzuten

Mikel Acosta

Hegoa Diskak zigilua sortu du Mikel Acostak Londresen, euskal musika esperimentaleko lanak argitaratu asmoz. Bederatzi urte dira hara bizitzera joan zela, eta distantziaren perspektibak balio izan dio Euskal Herriko musika panoramari bestelako begiratu botatzeko. Orain, begirada horretatik, iraganeko zein gaur egungo lanei erreparatzen die eta, aukerarik badu, gehien liluratzen dutenak argitaratzen ditu. Oraingoz bi disko atera ditu –Angel Katarainen bilduma bat eta Carcascara taldearen bigarrena–, baina bidean dira hurrengoak.

Aurreko zenbakirako Katarain elkarrizketatu ondotik, haren lana berreskuratu duenak ere beste hainbeste merezi zuela iruditu zaigu.

 KEPA MATXAIN  MIKEL ACOSTA

Hiru hilabeteko konfinamendua bukatu berritan harrapatu dugu Mikel Acosta (Irun, 1986). Erosketetara eta pare bat orduz kirola egitera ateratzeko modua izan dute, baina gainontzean etxean egon behar izan dute. Berak, ordea, astean lautan adiskide baten ardo eta janari dendan lan egiten duenez, ingurukoek baino aukera gehiago izan du mugitzeko. Hiru pisukiderekin bizi da, “ezinbestean”. “Hemen alokairuak oso garestiak dira, eta ohikoa da hiru, lau edo bost lagunekin ere bizitzea”. Edonola ere, ez da kexatzen. Pantailaren beste aldetik sumatzen den bezala, etxean lorategi txiki bat daukate, eta barbakoa egitekoak dira eguerdian, aspal-diko partez giro ona egiten duela aprobeztatuz. Tarte bat lapurtu diogu aurrez.

Badira bederatzi urte Londresen bizi zarela. Hango zerk erakarri zintuen?

Musikak. Lagun batekin Interrailez egindako bidaia batean etorri nintzen aurrenekoz, eta flipatuta gelditu nintzen. Musika asko –eta askotarikoa– dago hemen. Mundu mailan, New Yorken ondotik Londres izango da ziur asko musika aukera zabalena daukan hiria: reggae, dub, musika afrikarra, asiarra... Horrek erakarri ninduen. Oso toki gutxitan sumatu dut hemen adinako grina





ANGELZ
KATARASIN

musikaz ikasteko, eztabaidatzeko, lagunekin elkarbanatzeko, norbere ikuspuntua zabaltzeko. Hemen musika edonon dago. Urte arraro hau baino lehen egunero 200dik gora kontzertu egiten ziren, tamaina guztietako aretoetan. Lehenbizikoz etorri nintzenezan izugarri aldatu zitzaidan musika entzuteko modua, eta urtez urte, gero eta gehiago.

Zein zentzutan?

Etorri nintzenezan indie musika entzuten nuen batez ere. Arcade Fire eta halakoak. Euskal Herrira iristen dira talde horiek guztiak, baina hemen azkar aldatu zitzaidan belarria. Nire lagun minetako bat turkiarra da, eta haren bidez musika afrikar mordoa entzun dut: Fela Kuti, jazza, eta, tira, beste gauza asko. Txoko guztietako lagunak egiten dituzu, bakoitzak bere kultura dakar, eta egunero dastatzen duzu hori dena.

Kanal ofizialetatik datorrenaren espektroa zabaltzeko balio izan zizun Londresek, beraz.

Erabat. Hiria hain dago bizirik, zerorrek egiten baituzu zeure espektro propioa. Pitchfork eta halakoek beti markatzen dute ildo bat, baina hemen askok ez diote garrantzi handirik ematen horri, eta beren bidea egiten dute. Azken batean, musika aberastasun handia dagoen tokian kanal ofizialen eragina gutxitzen da.

Soinu teknikari gisa aritzeko asmotan joan zinen.

Iruñeko eskola pribatu batean egin nuen soinuari buruzko ziklo bat, bi urtekoa. Askok gustatu zitzaidan, eta hura bukatuta Londresera etorri nintzen, pentsatuz agian soinu teknikari gisa lan egin nezakeela. Iritsi bezain pronto ohartu nintzen, ordea, lehentasuna ingelesa taxuz ikastea zela. Lehen urteak horretan eman nituen, ostalaritzan lanean, eta ingelesa pixka bat hobetuz. Poliki-poliki musika talde batzuetan baxua jotzen hasi nintzen, eta, handik gutxira, europarrontzat beka batzuk zeudela jakin eta unibertsitate gradu bat ikasi nuen, *Bachelor of Science in Music Technology* izenekoa. Musika eta teknologiar buruzkoa zen: produkzioa, zuzenekoak, eta beste. Hura bukatu eta lanean hasi nintzen. Zortea izan nuen: lauzpabost musika areto dituzten lagun batzuen bidez DJ egoiliar bezala ibili nintzen asteburuetan.

Eta soinu teknikari gisa?

Zertxobait bai, baina ibili naizen apurra-

ren ondoren konturatu naiz ez dudala oso gustuko. Musikariak jende zaila dira [barrez]. Ego asko dago, batek bolumena altuago nahi duela, besteak... oso zailak dira maneijatzeko. Zentzu horretan, rock tradizionalan baino gusturago sentitzen naiz elektronikako giroan. Jarrera esperimentalak gustatzen zait, gauzak nahasten diren une hori, hor beti sortzen da zerbait interesgarria. Saillakazina interesatzen zait.

“ ”

Rock erradikalak sekulako pisua izan du, Ez Dok Amairuk eta protesta kantuek ere bai, baina bien artean badira sekulako altxorrak

Noiz erne zitzaizun Hegoa Diskak sortzeko ideia?

Musika bildumazalea naiz, eta topatu nituen pare bat disko euskaldun, nahiko bitxiak, sekula entzun gabeak: Haizea, Errobi, eta 70eko hamarkadako talde horiek, rock progresibotik gertu zeudenak. Nik entzuten nituen Kaotiko, Segismundo Toxicómano, Eskorbuto, geroago Lisabö, eta halakoak. Bestalde, hemen bada NTS izeneko irrati bat, aski ezaguna. Musikariak edo DJak aritzen dira abestiak ipintzen, eta zirkuitu komertzialetatik kanpoko edozer entzun daiteke. Batek euskal musika jarri zuen behin, Amaia Zubiriaren eta Pascal Gaigeneren disko bat, 60ko hamarkadakoa. Jazza kantutradizionalarekin nahasten zuten, saxofoia, sintetizadoreak, eta abar. Abesti itzelak dituzte. Hortik abiatuta, gauza gehiago deskubritu nituen, eta berriro Euskal Herriarekiko interesa piztu zitzaidan.

Zehazki zerk liluratu zintuen?

Nahasketarako grinak. Mila modutara nahas ditzakezu gauzak, baina zailena da naturalki egitea, inolako iruzurrik gabe, batere behartu gabe. Eta euskal musikari horien kasuan ez dago kalkulurik, naturalki ateratzen zaie. Hori nabaritu egiten da. Entzuten duzu Haizearen *Hontz Gaur* diskoa, bere kanpaiekin eta gitarra elektrikoekin, hamar minutuko abestiekin... gauza oso arraroa, eta ez batere salga-

ria. Benetan esperimentatu nahi zutelako egiten zuten.

Deigarria da nola talde horiek guztiak euskal musikaren “historia ofizialaren” B aldean gelditu diren...

Sentsazio hori daukat, bai. “Nola ez ditut disko hauek lehenago entzun?”. Nik orain gutxira arte entzun ez baditut, seinale hor hutsune handia dagoela. Rock erradikalak sekulako pisua izan du, Ez Dok Amairuk eta protesta kantuek ere bai, baina bien artean badira sekulako altxorrak. Kontua da horietara heltzeko pixka bat arakatu behar dela. Musika ona beti egon da, garai guztietan, leku guztietan. La Polla Records eta horiek ondo daude, baina garai bat izan zen hori, eta orain beste gauza batzuek ematen didate atentzioa. Niretzat musika etengabeko ikasketa da, beti ari naiz gauza berriak entzuten.

Eta orduan, 70eko hamarkadako artista haiek deskubritzetik erne zitzaizun zure zigilua sortzeko grina?

Aipatu dudan bezala, diskoak kolekzionatzen ditut. Bildumagileen giroan denetarik dago, jendeak dirutza ordaintzen du disko arraroengatik. 2007an Akauzazteko Rogelio Astigarragak Atanas Akerstra proiektu propioari ekin zion. Izugarrizko diskoa, bluesa eta psikodeliaren nahasketa, organoak ere bai tar-tean; kobazulo batean grabatua dirudi. Biniloan erosi nahi nuen, baina ez nuen topatzen. Azkenean, topatu nuen diskoa 250 eurotan salgai zeukan tipo bat. Irri-garria. Valentziakoa zen, eta horretan aritzen zen: disko baten ehun kopia ateratzen baziren, hark erdiak erosten zintuen, gero garestiago saltzeko.

Musika esperimentalaren espekulatzaile bat?

Erabatekoa. Binilo bildumagileen munduan badira halakoak. Saiatu nintzen prezio zentzudunagoan erosten, baina ezetz, hark. Eta azkenerako pentsatu nuen: egunen batean neronek egingo dut zigilu bat, eta disko hori berrargitaratuko dut. Hori otu zitzaidan, erdi brome-tan. Handik gutxira, Irunen nenbilela, Karlos Osinagak Angel Katarainen abestiak erakutsi zizkidan, eta kolpetik gustatu zitzaizkidan. Eta pentsatu nuen: “Nire Londresko lagunei gustatuko zaie hau”. Uste dut gau hartan erabaki nuela zigilua egin beharra neukala. Hemengo lagun batzuek sortu izan dituzte zigilu txikiak, eta argitaratu nahi nituen hiruzpalau gauza edukitzean haiekin hizketan hasi

nintzen. Halako zerbait nola egiten den arrastorik ez neukan. Non egin biniloak? Zenbat diru behar da? Hilabete batzuetan aritu nintzen halako kontuez ikasten.

Katarainen diskoko azala Jon Zabaleta ilustratzaileak egin du. Nolatan jo zenuen berarengana?

Luzaz aritu nintzen pentsatzen azala nork egin zezakeen, baina ez nuen inor topatzen. Madrilen banuen adiskide bat, diseinatzaile grafikoa, baina ez nuen azal tipikorik nahi. Nahiko garbi izaten dut zer ez zaidan gustatzen. Egun batez, Haizearen diskoa entzuten ari nintzen etxean, eta azalari erreparatu nion. Izugarri ederra da, eta Jon Zabaletak egin zuen. Gainera, azalaren barruan marrazki bat dago kasualitatez Irungo Jaizubia auzoan egina, justu nire aitona lan egiten zuen tokian. Eta pentsatu nuen, "tipo hau bizirik dago?". Facebook-en sartu, eta hantxe zegoen. Bideo-dei bidez hitz egin genuen azkenean, eta prest agertu zen. Askotariko zirriborroak bidali zizkidana, eta eskuartearen eduki bezain pronto esan nuen, "hauxe da". Egun nagusi diren azalen oso bestelakoa da. Denda batean disko hori ikusten baduzu, lehen kolpean ohartzen zara zerbait desberdina dela.

Garai bateko lanak berreskuratzeaz gain, egungo musikarientan ere argitaratuko dituzu.

Carcascara taldearen bigarren diskoa iritsi berri zait. Iñigo Ugarteberu eta bere bi lagunaren proiektua da. Bera Londresen bizi da, eta lagunak Zumaiar, oker ez banago. Duela hamabi urte grabatu zuten disko bat, ez besterik. Urtean behin soilik elkartzeko dira, astebetean, eta orduan bakarrik egiten dute musika. Ez zuten disko berria argitaratzeko asmorik, baina erakutsi zidaten, asko gustatu zitzaizkidan, eta bildumara gehitzea pentsatu nuen.

Zerk batzen ditu zure zigiluko musikariak, ezerk batzen baldin baditu?

Boteprontoan, ezer gutxi. Katarainen ambient musika eta Carcascararena erabat desberdinak dira. Gitarra akustikoa jazzarekin nahasten dute haiak, modu introspektibo batean. Nire gustu pertsonalak batzen ditu denak, ezerk batzekotan. Eta gero, sekulako garrantzia daukate proiektu horien atzean dauden pertsonak. Zigilu hau ez dut diruagatik sortu. 300 binilo kopia saltzeak ekonomikoki ez du konpentsatzen sartzen dudana denbora. Musikari horiek ere ez dute musika



Acostak argitaratu duen Angel Katarainen bildumaren kontrazala, Jon Zabaletak egina.

diruaren truke egiten, gustuko proiektu batean daudelako baizik. Ildoren bat egotekotan, hor dago: proiektu bereziak dira, gauza desberdinak egiteko gogoz daudenak. Carcascararen diskoan, adibidez, karpetak banan-bana egingo ditugu. Eta ez dugu musika Spotify eta halakoe-tan jartzen, adibidez.

“ ”

Zigilu hau ez dut diruagatik sortu. 300 binilo kopia saltzeak ekonomikoki ez du konpentsatzen sartzen dudana denbora

Zer martxatan hasteko asmoz zabilta? Baduzu helbururik, urtean hainbeste disko ateratzea edo

antzerakorik?

Helburu bakarra da hasi bezain pronto gauza asko ateratzea. Ideia asko ditut. Ez nuke nahi zerbait ona atera eta gero urte erdi bat egotea ezer atera gabe. Bi hilean behin atera nahi nuke zerbait, ahal dela. Ikusi dudana gatik, jendea interesatuta dago Euskal Herrian, eta baita hemen ere. Ideiarik ez zait falta. Duela gutxi artikulatu bat idatzi nuen Haizea eta 60ko hamarkadako musikari buruz ingelesez, eta pentsatzen ari naiz fanzine moduko bat egitea ere. Zigilua irekita dago proiektu desberdinetan lan egiteko.

Noiz itzuliko zara hurrena?

Urtean bizpahiru aldiz joaten naiz normalean. Urtarrila aldera, eta udan zehar pare bat aldiz. Ostalaritzan nabil lanean, eta batzuetan zaila izaten da oporrak hartzea. Eta beste zenbaitetan beste norabait ere joan nahi izaten dut. Ea ekainean edo abuztuan hilabete baterako joaten naizen. Familia eta lagunak ikusi nahi ditut, eta Angel Katarain, eta Jon Zabaleta... Hurrengo proiektuetarako lotzeko gauza asko ditut han. ●



LIBURUA

Itsasoei agur



SUSA

NI ETA GU

PAKO ARISTI

EREIN, 2021

IGOR ESTANKONA

Pako Aristik itsasoei idatzi die oraingoan. Zazpigarren poema liburua du. Begi bik gorde dezaketen ozeanoari buruzkoa da *Ni eta gu*, arrantzale eskuek konta ditzaketen sakonerei buruzko poemari berezia, askatasunaren itsaskirriaren gaineko tratatua: “Harremanen nomada naiz,/ lagunez lagun bidaiatzen dut,/ eta tratua ez da fideltasuna,/ joaten uztea baizik”.

Eta itsaso horiek Getariakoak dira, baina izan zitezkeen Oriokoak, edo are itsasorik ez den mundu krudel batekoak. Gordintasunetik beste baitauka liburu honek xamurtasunetik, zirt edo zart egiten dute-eta poemek, ez dira inondik ere geratzen irakurleak zer esango. Maitatuko duzu Pako Aristi, edo gorrotatuko duzu Pako Aristi. *Ni eta gu*

da liburu bat itsasgizonei dedikatua, ez da liburu bat etxeko sofán, bertan goxo, literatur kritikak idorreko lur-lan legez egiten dituen burges txikiarentzat.

Ni eta gu. Zazpigarren uhina horditurik bezala ari naiz irakurtzen, poesiaren funtsaren funtsa kausituz poema narratibo ederrotan. Lerrook idazten ditudan bitartean bukatzen ari naiz liburua, eta bizitzaren kintesentzia balitz legez ari zait Pako Aristi erakusten, irakasten, mistikaren eta bertsolariaren arteko genero jaso bat asmatu izan balu legez, zer den garrantzitsua eta zer ez: “Eskua altxatu zuen Sarak/ dena ulertu balu bezala,/ agur-agur,/ airean idatziz/ minaren hitzek/ uzten ez ziotena”. Hitz egiten dit ume baten heriotza injustuaz, zeina nahasten zaidan izurdekume baten he-

riotzarekin, liburu bihozgabe eta errukior honetan nabigatzen dudalarik erdi zorabiatu hainbeste olatu eta kontraesanekin, eta denboraren iragaiteaz egiten dit berba Pako Aristik, eta krudelkeriez, eta haizeez eta paisajeez, eta aldi bereko amodio guztiez, finean esateko bizitzak merezi duela, baina bizi egin behar dela legeen eta tabuen kontra.

Pandemiak mesede egin dio poesiari. Pako Aristik beste kostalde batzuk deskubritu ditu. Gure poeten artean subertsiboak berriro erakutsi digu bera dela gure poeten artean sensibleena. *Ni eta gu* metafora bat baino ez da. Hermetikoa du bihotza, irisgarria ordea bere azal leuna. *Ni eta gu* da opari bat, zazpigarrena, Pako Aristik egin diguna bere inkonformismo eder horren talaiatik. ●



MUSIKA

Borroka bihotzean



POU KARPO

IKER BARANDIARAN

Kultura, musika eta errebeldia ia ezereztuta gelditu diren garai ilun hauetan, inork espero ez zuenean eta, beti bezala, guztiaren kontrara Eloreko Iheskide taldea bueltan dator. Oztopen aurrean igeri egitera ohituta daude taldekideak –horretara ohitzetik badago behintzat–. Aspaldiko partez pandemiaren aurreko Hatortxu Rock-en igo ziren agertokira, bai ala bai han egon behar zutelako. Eta tarte luze honetan erabaki dute berriro proba egin, elkartu eta konposatzen hastea, sentazioak betikoak, onak, zirelako. Bada, diskoa kaleratu dute, taldeak berak, autoekoiztuta, eta zuzenekoak –neurtuta– egiten hasi. Ez dira aldatu; zertarako? Oraingoan ere apologia egin, eta bidegabekeriak eta

indarkeriak salatzen asmo irmoa dute.

Hala ere, urte hauetan taldeak izan du nolabaiteko bilakaera; hiruzpalau urte geldi egon ostean, Kata gitarra jotzaileak taldea utzi behar izan du momentuz eta hirukote moduan datoz orain. Musikari dagokionez ere, taldea ez da aldatu. Zertarako? Bere esentzia guztia hor dago. Haritz Harreguyrekin grabatu dute oraingoan ere eta argitaratu dituzten zortzi kantetan daude beti punk-rocka, Oi!-aren iraganeko isla, barreneko bizipen-emozioak, edozein bidegabekeriaren kontrako aldarria eta melodia mingarri baina itsaskorra, saihestu ezin daitekeena. Azken finean, Iheskide: “Rocka zainetan, punka izaeraren eta borroka bihotzean”. Ez dago hori



TINKO GUREAN

IHESKIDE

AUTOEKOIZPENA

baino definizio hoberik.

Mezuak, beti bezala, landuak baina zuzenak, konprometituak: *Tinko gurean*; *Hautsi moldeak, eutsi kolpeak, Atzo lagun, gaur zipaio*; *Maitatzea zer den ikasten askatasuna galtzen denean*; *Zenbat kilometro, bazirelako gara*; *Bake sozialaren mesedetan...* Bestalde, hirukote bilakatuta, musikalki kantei lastoa kendu eta harira doaz are eta nabarmenago, abestiak azkarragoak eta zuzenagoak bilakatuz. Ahotsak eta abestien norabideak taldearen betiko marka badute ere, bada gitarra distiratsurik, Alemaniako punk-aren zantzurik, high-energy eta eskandinaviar ukiturik, zein eskola zaharreko punk iluna eta tempo erdiko pasarteak ere. ●



Dantzaldi galduak

✍ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📷 A. CURTIS

Kontzertuak ez dira soilik zuzeneko musikaz gozatzeko aukera, klube-tan egiten diren musika sesioak aisialdirako aukera soilik ez diren bezala. Katarsirako uneak dira, eferbeszentzia kolektiboa lortzeko errituak. Zuzeneko emanaldietan, klub ilunetako sesioetan eta aire zabalean antolatutako *rave* jaie-tan parte hartzeak zure egoa baztertu eta komunitate kaotiko baten partaide egiten zaitu. Ardura kolektiboaren mesedetan, baina, aspaldi ez dago talde katarsirik. Dantzaldiak, denbora bezala, galdu egin ditugu.

Kulturaz gozatzea pizgarri eta pozgarria da egunotan, bereziki Villasound jaialdiaren egitaraua bezalakoei esker. Baina aukera oso erakargarria bazen ere, esku-frenoa jarrita bidaiatu behar izan dut, aulkian jarrita eta dantzarako aukerarik gabe. Ostegunean La Rebe eta J Martina ikusteko aukera izan genuen. Bi proposamen intimista horiek sortu-tako giroan eroso eta bero egon ginen.

Larrabetzuarren proposamenarekin bereziki gustura, aretoaren hoztasuna, soinu eskasa eta mantendu beharreko distantziak gorabehera.

Ostiralean Eddie Circaren eta Chill Mafiaren eguna izan zen. Lehengoaren protesta kanta eta gitarra bakarre-ko proposamenak ezustean harrapatu ninduen, baita bildu ziren zale askoren partetik izan zuen babes bero eta zala-partatsuak ere. Iruindarren emanaldia hurbiltzen ari zela tentsioa gora nabari zitekeen giroan, tentsio pizgarri eta zirrargarria. Sara Goxua DJ-aren berotze sesioa hasi zenean energia kontrolaezin bilakatu zen. Dantza, oihu eta bestela-koetarako gogoak menderaezinak izan ziren. Kontzertua *31014* ereserkia taldekideen eta entzuleen artean aho batez abesten bukatzea, argiak piztuta eta soinua moztuta, gaitzak exorzizatze-ko erritu kolektibo magikoa izan zen.

Larunbatean La Trinidad-en eta VVV-ren kontzertura sartu ezinik gera-

VILLASOUND JAIALDIA

NOIZ: maiatzak 6, 7 eta 8.

NON: Bilbo.

tu nintzen edukiera mugak zirela eta. Lehenengoak ezagutu ez, baina VVV maite ditut. Euren post-punk eta tekno nahasketa ederrak liluratuta nauka. Beraien azken lanak, *Escama*, eta horren erremixek, *Los bailes perdidos*, garai honetan gailendu den geldotasun giroari aurre egiten lagundu didate. Agian hobe kontzertura sartu ez eta kalean geratu izana. Agian hobe dantzarako gogoak erreprimitu behar ez izatea, hirugarren egunez jarraian frustrazioari aurre ez egitea.

Berriz bilduko gara, noizbait, heriotzari beldurrik ez bagenio bezala dantzatzeko. Enegarren guda galduta, soilik dantzatzea geratuko zaigu eta. Suari babesa erregutuko diogu hilko gaituenaz barre egiteko. Ilunabarra eta egunsentia aldi berean ikusiko ditugu. Lagun eta neba-arrebekin, ezezagunekin bat egingo dugu, eurekin batera urtuko gara. Adiskidetasuna eta kolektibitatea. Hori da nahi dudana guztia. ●



Hitz gezidunak

MAHAI-JOKO ATEN DUENA	ADIURRE, IZAERA LOTSAKOR, LOTSATI	UKAPENA	ZINTZO AHOLKU	OK EGIN ERREPIKA- TUZ, LOGURA- REN EULIA	BEREHALA, LASTER UMEKI	PERTSO- NAIAREN ABIZENA LOKARRIA
		AHOLKU PRASEODI- MIOA				
HOR ..., MARI ANTON BETIKOTASUN			AGURE GUZTIZ ZAHAR TONA			
				DIRULA- GUNTZA ZAKUR		
IXILIK	BEGIRA BITXI, OHIKOA EZ DENA		<p>DANI BLANCO</p>			ARTSENIKOA BIDEGA- BEKERIAK PAIRATZEN DITUENA
		ORAINDIK				HEGAZTI ZANGALUZE JOTZAILE, JOLE
ZORO GALDE PARTIKULA						
	ROENTGEN ERABATEKO NAHASTE					ZEINU DA, HAIEI (ALDERAN- TZIZ)
ALDERDI KARLISTA ERREKA		1500 ERROMATAR ZENBAKIZ SUITZAKO IBAIA	ARRAS, ZEHARO ARRANTZA- TRESNA	BIGARREN BOKALA	TANTALOA OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA	ALA
				ATOMO KARGATU HOLMIOA		ENERGIA NOREN ATZIZKIA
PIRATEN EDARIA EZORDU			PERTSO- NAIAREN IZENA 500 ERROMA- TARRA			
				UR GAZIZKO EREMU HANDI		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1				9			4
4			8		3		
	8	2	4	6			1
9						7	
	7						5
	5						9
	3			7	6	5	4
		5		4			2
6			9				8

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Irekigunea, barrunbea.
2. Errape.
3. Soka urka-bilurduna.
4. Intsektu mota (pluralean).
5. Merkatua.

EBAZPENAK

1. ZULOA
2. UGATZ
3. LAKIO
4. OTIAK
5. AZOKA

8	2	4	7	3	8
7	1	5	4	8	2
3	6	2	7	5	4
8	5	1	6	2	7
2	7	6	8	9	4
9	4	8	5	3	1
5	8	2	4	6	3
4	9	7	1	8	2
1	6	3	7	5	9

O	N	A	Z	O	U	R	O	S	E	D
O	N	A	Z	O	U	R	O	S	E	D
E	I	O	R	A	D	A	I	B	A	I
V	A	T	E	O	M	A	K	E	K	A
R	I	K	U	R			R	A	L	R
S	I	B	I	O	I	L	E	R	O	
S	V	A	R	O	R	O		X	I	
K	A	B	E	R	A	U	T	E	B	E
N	O	T	S	E	N	O	N	O	K	O
L	U	E	S	T	N	O	K	E	L	E
O	F	A	O	U	J	I	X			

Irantzu Ibañez eta Andoni Duque

ZURE ETXEA,
BENETAN AL DA “ZUREA”?



KONTINENTE GUZTIETAN AUKERA BERDINTSUAK

“Kontinente guztietako etxebizitza eskaintzak aztertu ditugu. Eta, Zaida Muxík *Arquitectura de una ciudad global* [Hiri global baten arkitektura] liburuan dioen moduan, hiru multzo daude: AEBak, Europa, eta gainerakoak. AEBek ereduak esportatzen dituzte; pelikuletan ikusten ditugun sukalde amerikarrak, eta abar. Hona ere heldu da, baina European tradizioak errotuago ditugunez, gauza batzuk hartzen ditugu eta beste batzuk ez. Aldiz, Afrikan, Asian, Hegoamerikan..., eredu horiek Mendebaldeko kulturaren isla direnez, askotan ontzat hartzen dira, eta kopiatu. Ondorioz, bertako nortasuna galtzen da, edo desagerrarazi”.

“Etxebizitzen gaur egungo antolaketak indibidualismoa bultzatzen du”

Etxebizitzen barne antolaketan globalizazioak duen eragina aztertzeko asmoz, urte hasieran artikulu laburra argitaratu zuten *Aldiri* aldizkari espezializatuan Bilboko Halo Arkitektura estudioa osatzen duten Andoni Duquek (Bilbo, 1984) eta Irantzu Ibañezek (Basauri, 1987). Izenburua, *Globalizazioaren doktrinamendua espazio domestikoan*, eta ondorioetako bat, hauxe: etxebizitzen banaketa kapitalismoaren isla da.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Zerk bultzatu zintuzten azterketa hori egitera?

Gure lana dela-eta, guretzat oso gertuko gaia da etxebizitzen barne antolaketa. Bageneukan aurreiritzi bat: nahiko antzekoak direla guztiak. Uste genuen merkatua oso estandarizatuta dagoela. Hortik abiatuta, jolas moduko azterketa bat egin genuen. Webguneen bitartez zenbait herrialdetako etxebizitza eskaintzak begiratu genituen; bakoitzean aurkitutako lehen adibidea, betiere. Eta irizpide batzuk jarri genituen, azterketa orekatua izan zedin: bi logelako etxebizitzak izatea, terraza gabeak, eta hiriguneetan egotea. Ikusi nahi genuen ea gure inguruan nabaritzen dugun aukeren murriztasun hori mundu osoan dagoen. Edo herrialde bakoitzak oraindik bere modua duen etxebizitzaren barnea antolatzeko.

Ondorioa lehenengoa izan da, hau da, aukera murriztasuna dagoela.

Bai, guk pentsatzen genuenaren ildotik, hain zuzen. Hala ere, desberdintasun batzuk ikusi ditugu. Esaterako,

norberaren higieనేarekin lotutako guneek tokiko izaerari eusten diote oraindik. Nahiko kontu pribatua da, gutxi agertzen da ikus-entzunezko produktuetan.

Zuen azterketaren arabera, zelakoak dira gaur egungo munduko etxebizitzak?

Eredu arrazionalistaren arabera: gauaren eta egunaren arteko banaketa dago, publikoaren eta pribatuaren artekoa. Eguneko guneak, publikoak, sukaldea eta egongela dira, eta gero eta bateratuago daude, baina oraindik ere sukaldea herrialde askotan itxia da. Egongelaren ondoan, baina itxia, lehen aipatu dugun higieనేaren kontuagatik hain zuzen (sukaldea “zikina” baita). Eta egongelan, telebista-sofa binomioa bihurtu da ardatza. Horren inguruan antolatzen dira bai sukaldea bai egongela.

Ez da planteatzen telebista gabeko etxebizitzarik, beraz...

Ez, eta gainera, telebista dagoen gu-



"Badaude etxe mota desberdinak, baina merkatuak mugatzen du horri buruzko hausnarketa, ez du aukerarik ematen".

nea etxearen erdigunea da. Adibidez, Euskal Herrian eraikitako etxebizitza zaharretan, orain dela 60 urtekoetan -edo, askotan ikusten da sukaldea, eta batez ere sukaldearekin lotuta zegoen jangela zirela etxebizitzaren zentroa. Horren inguruan antolatzen zen bizitza. Aukera hori dagoeneko ez da eskaintzetan agertzen, eta telebista-sofa binomioa da protagonista.

Atera duzuen ondorioa da banaketa hori kultura kapitalistaren isla dela. Zergatik?

Arkitektura bizi dugun errealitate politiko, sozial, ekonomiko eta teknologikoaren adierazle ona da. Azken batean, produktu kulturala da. Gaur egungo gizartearen produktua. Beraz, gizartearen balio eta printzipio asko agertzen ditu. Gainera, eskaintzen diren etxebizitza gehienegileak botere ekonomikoarekin eta araudiak egiten dituzten botereekin lerrotatuta daude.

Eta zer balio bultzatzen da?

Batetik, individualismoa. Eskaintzen den logela motari begira oso agerikoa

da hori. Beti egoten da logela nagusia, bikoitza, familiako buruentzat egindakoa (eta familiako buruek bikotea izan behar dute). Aldiz, bigarren logelak, edo hirugarrenak, askoz ere azalera txikiagoa dauka, eta guztiz bultzatzen du individualismoa, erabilera-unitate independentetzat hartzen baita. Baduzu lo egiteko ohea, baita ikasmahai bat eta armairu bat ere. Hortxe pasa dezakezu eguna, etxeko besteekin harremanik izateko beharrik gabe. Orain, gainera, askotan, telebista ere eduki daiteke barruan. Beraz, individualismoa da ezauzgarrietako bat, eta hierarkia beste bat. Logela batek armairua izateak esan nahi du logela horren jabea dela armairu horren barruko gauzen jabea. Horrek zerbait zehazten du. Jabego pribatua gorai patzen da, nolabait: bakoitzak berea dauka.

Zer alternatiba dago?

Esan dugun moduan, deseraikitze prozesu bat beharko litzateke. Baina historian eta munduan badira adibideak. Alternatiba bat izan daiteke, agian, logelak lo egiteko bakarrik izatea, ohearen


tamaina baino askoz handiagoak ez, eta hortik kanpo egotea etxeko kideek partekatzen duten ikasteko edo lanerako gune bat. Edo armairu bat. Izen berri-dun espazio berriak sor daitezke, etxeak dituen erabilera guztiak bestela antolatuta. Jolasteko guneak, eta abar.

Paradoxa bat aipatu duzue: kapitalismoaren isla izanagatik, merkatu librearen arauen aurkakoa dela eskaintza. Ez baitu aukeratzeko tarterik ematen.

Arrazoia da, gure ustez, merkatuak behin bakarrik saltzen duen produktua dela etxebizitza. Eta beharrezko produktua denez gero, eskaintzak erosi behar du jendeak. Oso barneratuta dugu hala dela, baina ez da zaila konturatzea beste eredu batzuk badaudela. Ezagutzen ditugu etxe mota desberdinak, baina azkenean merkatuak mugatzen du hausnarketa. Ez du aukerarik ematen, eta zuk erabaki behar dituzun gauza bakarrak dira etxea non dagoen, zenbat metro karratu dituen, bi edo hiru logela dituen eta sukaldea eta egongela batera egongo diren ala ez. Besterik ez, ia. ●



“Azpeitiko ertzainak negarti hutsak dira”



“Bueno, bueno, bueno, ez daitezela hainbeste kezatu e!”, adierazi du Nerea Rodriguez ETB1eko “Eztabaidan” saio-ko tertulistoak, Azpeitiko kale-zurruta zapuztu eta gazteak pixkat jipoitu zituzten ertzainez hizketan: “Esaten dute kriminalizatu ditugula. Ume negartiak izan dira pixka bat nire ustez. Ertzainek hobe lukete gutxiago hitz egin eta gimnasia gehiagotan joan. Demokrazia proportzionalki banatzeko eskubidea aldarrikatu dute eta barkatu, baina ez. Esan nahi det, urtebete baino ez dute

pasa borrakadak ematen, matrail-hezurrak apurtzen, sindikalista eta langileei greba egitea zer den irakasten eta jada kezaka? Aizuosea, barkatu, urte bat barkarik galdu duzu. Ikusi ditugu, irudiak, ikusi ditugu bideoak, eta zein bigun kargatzen ari diren. Eta barkatu, Azpeitian trafikoko ertzain odolgabeak tartean zeuden. Niretzat hori argi dago. Non zeuden ESANeko kideak?! Eta horrek ez du kentzen ba... ui, itxoin, dei bat... *Sí? Hola cari, bai, mañana a las 18:00 en Mujombres&Viceversa*”.

SAREAN ARRANTZATUA

Askatasuna



@ememegintza / Instagram

Odolaren mintzoa



Haur eta txakurrekin euskaraz hitz egiteko eskubidea berretsi du Frantziak



Euskal hitzun bat.

Emmanuel Macron presidenteak esan du, lasai egoteko, Frantziako herritar frantsez lasai asko hitz egin ahal izango dutela euskaraz euren txakur eta seme-alabekin, baldin eta metro eta erdira ez badago beste pertsona bat txakur edo seme-alaba horiekin frantsesez hitz egin nahi duena, orduan egoera horretan ere denok ulertzeko moduan hitz egin beharko lukete. Macronek, halere, albiste pozgarri gehiagoren berri

eman du: "Badakigu, hor behean badagoe-la jendea, agian, oso frantses ona ez dena, baina Errepublikan denok dugu lekuri, eta nik denontzat gobernatzen dudanez, Konstituzioan aldaketa bat sartu dut haientzat. Franck Dolosorrekin hitz egin dut eta berak laster jakinaraziko dio Pays Basque osoari Ezpeletako piperrak eskubide konstituzionala izango direla aurrerantzean, eta ez duela nehorik haien aurka egingo".

UDAKO TOPAKETAK 2021

Uztailak 5, 6 eta 7, Donostian

www.hikhasi.eus



IKASTAROAK:

- Budapesteko PIKLER-ŁOĆZYKO 0-3a
- Haur Hezkuntzako haurren ekintzen zentzuaz
- Jolasaren bidezko heziketa sortzailea
- Eskoletako kanpo espazioak jolaserako espazio al dira?
- Askatasuna: mugatutako errealitate batean, desloak gauzatzeko tresna
- Dislexia
- Heriotzaren lanketa
- Mugak jarri autoestimua zainduz
- Bitartekaritza bost pausotan
- Kontaidazu istorio bat
- Hitzak gorputzera edo zer egin haur poesiarekin
- Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa
- Estresa eta antsietatea COVID-19aren garaian
- Gatazkak ulertu eta eraldatzeko gakoak
- Familia eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik
- Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa
- Irakasleak indartzeko baliabideak, gaur egungo egoeratik abiatuta
- Pedagogia sistemikora hurbilketa
- Zirimiri: oinarrizko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko
- Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan
- Yoga eta ipuinak uztartuz
- Meditazioa oinez naturan
- Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan
- Gorputza eta bizipena: baliabide pedagogikoak
- Barnekotasuna hezkuntzan: norberaren zaintzak besteak zaintzea dakar

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

25
hh
hikhasi
URTE



eko lurra

Hautu egoki batek guztia aldatu dezake.
Ekologikoa eta bertakoa

> ekolurra.eus <



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

